


ANTONIO ZAVALA S. I.

Axentxio Txanka

BERTSOLARIA



AUSPOA LIBURUTEGIA

Axentxio Txanka
BERTSOLARIA

AUSPOA LIBURUTEGIA

59

COLECCION AUSPOA

**Administración: Plaza de Santa María, 2 - Tolosa
(Guipúzcoa-España) Tel. 661612**

**Dirección literaria: Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J.
Estudios Universitarios - Mundaiz - San Sebastián**

Ordaindu bearrak:

**Urte betekoa: 280 pezeta Atzerrian: 380 pezeta
Ongilleak: 500 " Ale bakarra: 35 "**

ANTONIO ZAVALA, S. I.

Axentxio Txanka
BERTSOLARIA

AUSPOA LIBURUTEGIA
1966

D. L. S. S. 550/66

**IZARRA - Peña y Goñi, 13
SAN SEBASTIAN - 1966**

ARKIBIDEA

Axentxio Txanka bertsolaria	9
Axentxio Txankaren aita	13
ESTROPADA-BERTSOAK	
1933: Bertso Berriyak: «Onra aundi- yak merezi ditu...»	19
» : Bertso Berriyak: Lengan Orda- ñak: «Milla bederatzi eun eta...»	26
» : Bertso Berriyak: «Lendabizikok neriak ziran...»	30
» : Bertso Berriyak: «Pasadizuak biar bezela...»	37
» : Bertso Berriyak: «...zortzi treñe- ro jokatu dira...»	42
« : Bertso Berriyak Marzial Urtxegiak jariyak: «Milla ta bederatzi eun da...»	47
1934: Bertso Berriyak: «Pasadizuak adierazteko...»	54
1935: Bertso Berriyak: «Emeretzireun urtez gañera...»	62

» :	Bertso Berriyak: «Itzalditxo bat ateratzeko...»	68
1940:	Bertso Berriyak: «Milla urte ta bederatzireun...»	75
1942:	Bertso Berriyak: «Bertsuak ipintzera orain naiz abiyan...»		81
1951:	Bertso Berriyak: «Milla pasatu bederatzieun...»	89

GAÑONTZEKO BERTSOAK

	Bertso Berriyak: «Goiarritik artzai bat jetxi zaigu guri...»	94
	Bertso Berriyak: «Nola arkitzen gera morroi ta nagusi...»	101
	Bertso Berriyak: «Jesusengana laguntza eske...»	107
	Bertso Berriyak: «Entendimentu txarra ez badet ekarri...»	117
	Bertso Berriyak: «Beatzi punturekin dijuaz bertsuak...»	122
1953:	Bertso Berriyak: «Bertso berriyak ateratzeko...»	128
» :	Bertso Berriyak: «Arrantzalien jaia San Pedro eguna...»	133
1957:	Bertso Berriyak: «Luis Atxaga karga jasotzen...»	140

AXENTXIO TXANKA BERTSOLARIA

Txanka bertsolaria, “Ascensio Maximiano Echabe y Lerchundi”, Orio'n jaio zan, 1890 urteko Otsaillaren 21'an, eguerdiko amabietan, Txanka-goikoa baserrian. (1)

Gurasoak zituan: “Ignacio María Galo de Echabe” ta “Josefa Joaquina Gregoria de Lerchundi”, Oriotarrak.

Aitaren aldeko aiton-amonak: “Miguel Joaquín de Echabe y Amigorena”, Oriotarra, ta “Manuela Josefa de Eizaguirre y Altuna”, Zarauztarra. Amaren aldekoak: “Juan Bautista de Lerchundi e Irazu” ta “Micaela Antonia de Lerchundi y Azcue”, Oriotarrak.

Aita ta ama pontekoak: “Ascensio de Irastorza”, Usurbildarra, ta “María Josefa de Lerchundi”, Oriotarra.

Orain Axentxioren illobak oroitzen diranez, lau senide izan ziran: Ramona, Kontzezi, Erramon ta Axentxio. Au gazteena.

(1) Orio'ko elizako 7'gn. bataio-liburua, 39'gn. orri-alde.

Mutil zar gelditu zan, eta bere denbora guzia jaiotetxean egin zuan, nekazaritzan.

Aita ere, Iñazio Mari, bertsolaria zan; aotik aora kantatzeko, Axentxio bera baño ohea. Ta parranda asko xamar egiña izango zan, gañera, esaten dutenez.

Axentxiok, aotik aora ere kantatzen zuan, bañan ez plazetan, tabernan edo lagun-artean baizik, eta oso mantso ta patxaraz. Zori txarrez, auetako bertso bakar bat ere ez degu jaso al izan.

Firma beatzarekin egiten zuan, bañan ba omen zekian irakurtzen, ta periodikuetan-eta jarduten zan.

Orregatik, bertsoak paperean jartzeko, sekretariotza nork egingo zion bear izaten zuan. Lan ori egin izan ziotenik, iru lagun auek billatu ditugu:

Anita Ernategi, beraren illoba, 1936 urtean ezkondu arte, Txanka baserrian bertan bizi izan zana. Bertsoak kopiatzeko, salara igozten omen ziran, bakardadean obeto jarduteagatik.

Bigarrena, Pello Saikola, berez Pedro Aranburu, bertsolaria bera ere, bere denborarik geiena Orio'n eginda orain Oñati'n bizi dana. Txankaren lagun aundia zan, eta sekretariotza egin ez-ezik, kanta-paperak ere, erriz-erri bein baño geiagotan saldu zizkion.

Irugarrena, Frantzisko Lertxundi, Errikotxia bertsolariaren billoba, Andu baserrikoa, bertsolaria au ere. Onek bein bakarrik egin zion lan ori, bañan jarri-aldi au ez degu iñon arkitu.

Txankak, bere izenik gabe argitaratzen zituau bertso-paperak, "Arrantzalien jaia — San Pedro eguna" asten dana izan ezik. Bañan aitatutako iru sekretario oiek, beraren illobak eta Orio'ko beste zenbait bertso-zalek ao batez argitu digute Axentxioren bertso-paperak zein diran, beren testigantza banaka eman badute ere.

Bertso-sail bakoitzaren aurretik oar au be-
ra egitea alperrikakoa ez-ezik, aspergarria
ere izango baitzan, irakurlea jakiñaren ga-
ñean geldi bedi, besterik gabe, zera onetaz.

Bañan argitzalle auk Axentxioren bes-
te lau jarri-aldiren berri eman badigute ere,
ez degu, zori txarrez, bertso-papera iñondik
eskuratu.

Oietako bat, Luis Atxaga pulsolariari ja-
rri ziona da. Pello Saikolak buruz zekian
bertso-pare bat eman digu, ta orrekin gel-
ditu bearko degu; beste iruretan, berriz, ja-
rri-aldiaren gaiarekin soil-soillik.

Ala, badakigu Arantzazu'ko Amari, Orio'-
ko mixio bati eta, izenik gabe, bere sekre-
tario eta saltzalle zan Pello Saikolari berari

ere bertsoak jarri izan zizkiela, bañan jarri-aldi oien papera ez degu arkitu. ezta bertso bakar bat ere iñoren aotik jaso al izan.

Azkenerako, beti bere buruarekin bertso-tan ari zala jarri omen zan. Orregatik, ezagutu zutenak diotenez, jarri-aldi asko izango zuan buruan, paperera pasa gabez guziak berekin beste mundura eramango zituenak.

Oso gizon ona, umilla, xuxena ta prestua omen zan.

Erioak bat-batetan eraman zuan. Udazkena baitzan, babarrun biltzera joana zan. Illuntzean illoba gazte bat joan zitzaion, eta lurrean erorita arkitu zuan. Etxera korrika bueltatu zan: "Osaba ilda bezela dago!" Joan ziran eta ilda arkitu zuten, oraindik bero-bero zegoala. Elizako eriotz-agiriak dionez, *infarto de miocarditis* izan zuan. Eguna, 1961 urteko Urriaren 13'garrena zan, eta ordua, arratsaldeko zazpirak. (2)

(2) Orio'ko elizako 8'gn. eriotz-liburua, 169'gn. orri-alde.

AXENTXIO TXANKAREN AITA

Itzaurrean esan danez, Axentxioren aita ere, Iñazio Mari, bertsolaria zan.

Etzuan, semeak bezela, bertso-paperarik atera izan, bañan aotik aora kantatzeko, semea baño geiago omen zan. Zori txarrez, aren bertso gutxi jaso degu.

* * *

Igande batez, Orio'n goiz-mezetan izanda, gizon-kuadrilla bat, oi zuten bezela, berriketan zetorren. San Martin ermitaren ondotik igarota, Lizargarate baserriraño eldu ziran. Andik zuten partiera norbere etxera, ta pixka batean bertan gelditu ziran asteko kontuak esaten.

Ala zeudela, Altuna baserrian ezkondata bizi zan Iñazio Mariren arreba bat, goitik bera laisterka azaldu zan, meza nagusira juxtu xamar zijoala.

Anaiak, arreba ala ikusita, bertso au kantatu zion:

Korrika emen dator
Joxepa Inazi,
bein bear genduben au
onela ikusi;
amarretako meza
joan da igesi,
alper-alperrik da ta
ez korrika asi. (1)

* * *

Baserri batean Maria Luisa izeneko andre bat omen zan, San Juan gauean eskean mutil-kuadrilla zakar artu eta limosna nekez ematen zuana.

Urte batean, aren ate ondoan kantari ta kantari ari omen zan Txankaren aita, bāñan Maria Luisa ori azaltzen ez.

Orduan, asperturik, onako kopla au kantatu zion:

Emango baden, eman zan,
bestela ezetz esan zan...
Maria Luisa alu bizer zuri,
iri erantzun biar zan. (2)

* * *

(1) Maria Josefa Lertxundi, Errikotxia bertsolariaren alaba, Andu baserria, Orio.

(2) Kristino Arruti Lertxundi, Errikotxia bertsolariaren billoba, Andu baserria, Orio.

Beste batean, Agiñaga'ko Gorosti baserrian limosnarik ematen etzietelako, onako koplak au kantatu zuan:

Gorostiyako ertzian
belia dago aitzian...
Ezkabi gaizto egingo al zan
ere ipurdi beltzian! (3)

(1) Inazia Peña, Inazio Maria Txanka onen billobaren andrea.

Kopla onek izugarri balio du, guk uste, eskeko kopla zaar zaarrak zer ziran jakiteko.

Euskal kopla zaarrak teknika berezi bat dute. Gogora zagun adibidez ain ezaguna dan onako au:

Eder zeruan izarra,
errekaldean lizarra...
Etxe ontako etxejoaunak
urregorrizko bizarra.

Lenengo bi puntuak zertara datoz? Zer ikusirik ba al dute koplaren beste erdiarekin? Galdeera auek buruaustea pranko eman izan diete euskaltzaleai. Bañan, kopla auek zefiek eta zer-nola asmatuak diran ez baitakigu, pulamentuzko erantzuerarik ezin eman izan diegu galdeera oiei.

Bañan, irakurlea oartuko zanez, Inazio Maria Txan-karen kopla au, bere gertaera ta guzi eman digu-tena, kopla oietako bat da, antziñako euskal kopla zaarren teknika du.

Manuel Lekuona apaiz jaunak igarri zionez, lenengo bi puntuak, poesiaz betetako iduri bi dira, ondoren datorren pensamentuari bidea zabaltzen diotenak. Iduri oiek koplariak inguruko zerbaitetik artuak edo, bestela, berak bere irudipenez asmatuak dira.

Teknika onek ez dio inbiririk, nik uste, iñongo poesia-teknikari, ta olakorik asmatzen zekiten gizona-k bene-benetako poetak zirala, dudarik ez da.

ESTROPADA-BERTSOAK

(1933)

Donostia'ko estropadetan, 1927-1932 bitarteko bandera guziak San Pedro'k irabazi zituan, sei bandera segiran alegia. Orregatik, 1933 urtean Orio'k irabazi zuanean, etzuan jendeak itzbide-paltik izan. Ta bertsolariak ere ekin zioten bertso-jartzeari.

Sei bertso-paper arkitu ditugu: Lenengoa, Oriotarren alde; bigarrena, lenengoaren ordañak, San Pedro'ren alde; irugarrena Orio'ren alde, lenengo bertsolariak berak San Pedro'koari erantzunez.

San Pedro'ko bertsolari ori, eztakigu nor dan. Bestea, herriz, etzan Orio'koa; emengo bertso-zaleak diotenez, "Lamitegi" esaten zioten Asteasu'ko bertsolari bat omen zan. Ta itxura ere ala da. Bertsoak oso gaizki itzegiñak baitira, ta ez baitzuan Txankak olakorik jartzen.

Bañan Asteasuar batzuek esan didatenez, beren erriko Lamitegi baserrian ez dute

bertsolaririk ezagutu. Beren iritzirako, bertso auek Aranburu-berri bertsolariarenak izango dira.

Laugarren ta bostgarren jarri-aldiak, Txankarenak dira. Ala esan dute, ao batez, Txankaren illobak eta Orio'ko bertso-zaleak.

Seigarren jarri-aldia, Marzial Urtzegia dalako batena da, paperak dionez. Eztakigu nor dan.

Sei jarri-alditik, bi bakarrik Txankarenak, seguru esateko. Zergatik, beraz, jarri dira guziak onen liburuan? Bertso-paper oiek danak alkarri zirika egiñak diralako, ta ala, alkargandik apartatuta, erdia baño geiago galduko zutelako.

Estropada au, Agorrillaren 10'an eta 17'an, zortzi treñeru artean jokatu zan, eta onela gelditu ziran: 1'ngo.: Orio; 2'gn.: Ondarria; 3'gn.: Donostia (Amaikak-Bat); 4'gn.: Santurze; 5'gn.: San Pedro; 6'gn.: Sestao; 7'gn.: Luchana; 8'gn.: Donostia (Empuje).

BERTSO BERRIYAK

- 1/ Onra aundiyak merezi ditu
aurtengo ontan Kantabriyak,
auzotik nola izan diraden
asarre izugarriyak,
motibo ori dala meriyo
dirade bertso berriyak,
fama aundiyak merezi ditu
ortan Oriyoko erriyak.

- 2/ Iñola ezin utzi nezake,
San Pedro nua sartzera,
gizon askotxo gertatzen dira
da atso asko saltsera,
aurtengo ontan izana dute
berebiziko aukera,
uste etzutena gertatu zaie:
gelditutzia atzera.

- 3/ Desio'izutet urte askuan
abildade ta osasuna,
danak dakite ederki asko
asko baliyo dezuna,
enteratuta arkitzen gera
irabazi ziguzuna,
argatik alkar probatutzera
juan giñaden Iruna.

4/ Enteratuta arkitzen gera
aurtengo pasadizuak,
danak arrotuta ibilli dira
anai eta lengusuak,
igualmente juzga litezke
nola ume ta atsuak,
nolabait ere deskuidatu'ida
ego gabeko usuak.

5/ Arrillaga, akordatzen al zera
berdeletara juanda,
etzanda antxen gebiltzaden gu
indarrik ezkenduben da,
oso arrituta gelditu nintzan
gizon on batek esanda,
burla egiten zertako jardun
motiborikan etzan da?

6/ Bein ere etziguzun ematen,
Arrillaga, arrazoi onik,
iñork ez dizu deklaratu
guk kulpikan gendubenik,
animaliyak ere ez dit eman
sekulan orlako miñik,
pentsatzen nuben ote ziñaden
beste moduko personik.

7/ Oso onduan ibilli gera
udaran eta neguban,
aurten orlako estropazorik
pentsatutzen etzenduban,
akordatzia nai nuke beti
zer burla egin zenduban,
zu bezelaxe bestiak ere
jaio giñaden munduban.

8/ Orra, kristauak, mundu onetan
nola izaten dan grifa,
sasoian nagon bin-bitartian
dantzatuko det mingafia,
sekulan etzait neri aztuko
zuk antxen gaizki egiña,
etzaizu laister sendatuko
aurtengo tripako miña.

9/ Urte betian gobernatuta
Paulinokin ziñan irten,
Oriyo ontan sartu dirade
iru bandera eder aurten,
mundu ontara jaio giñaden
makiña bat asto-kerten,
eskarmentatziagaitikan
berrizko jakin dezaten.

10/ Lenbizikua Tolosatikan,
bigarrena Irundikan,
Donostira berriz juañ giñaden
probatutziagatikan,
oso arrotuta gizon batzuek
irtenak San Pedrotikan,
banderarikan ederrena guk
ekarri gendun andikan.

11/ Gure Jainkuak eman ziraden
indarra eta graziya,
egon ziñezke urte batzutan
lanteri ortan etsiya,
sei urtian nagusi izanda
oixen da diferentziya,
aurtengo ontan borratu'itugu,
da guretzat da auziya.

12/ Itzegingo det biar bezela
alain gogor eta sendo,
laguntzallien faltik ez daukat,
kantatu biar det ondo,
orlako markik egin dubenik
inguru auetan nun dô?
aurten San Pedroi Oriyok kendu
berrogei ta bi segundo.

13/ Oriyo ontan gertatzen dira
makiña bat talo-jale,
testigun bistan arrazoi ori
askotan esana zaude,
polborik gabe tiro gaizto bat
guri zuk botia dale,
uste ez arren zure aurretik
etorri giñan alare.

14/ Diferentiak beti dirade
nola antxo ta sardiña,
gauza igualtsubak gertatzen dira
ala ezurra eta zafiña,
zuretzat dator, ai Arrillaga,
lenago gaizki itzegiña,
gure taluak gaur baliyo du
zure txuleta onak aña.

15/ Naiz uste arren zerala zerbait
ez degu zure bildurrik,
projimua ezta postura orretan
gaizki tratatu biarrik,
ikusi dira amalau mutill,
igualmente bakarrik,
zure ustiak zerbait badira
bañan zabiltza alperrik.

16/ Arrillaga, nik badakit ondo
gizon formal bat zerala,
amaika bider esan diguzu
gu ijituak gerala,
bañan sekulan ez gera ibilli
zu zabilzaden bezela,
gu aurten abillak atera gera,
zu herriz oso motela.

17/ Ai, Arrillaga, izan dituzu
zeure buruko ustiak,
lastima auxe dadukazuna
juan zaizkizu urtiak,
larriturikan arkitzen dira
zure barrengo estiak,
biba patroia lendabiziko
ta Oriyoko gaztiak!

18/ Akordatutzen al zera, aizu,
lengo istori zarrian,
milla bederatzireun eta
lendabiziko urtian?
Oriyotarrak orduban ere
izan ziran suertian,
gauza oriyek akorda zaitez
bizi zeraden artian.

19/ Amabost bandera badaude,
granorik ezta txarrikan,
amalau garbi irabaziyak
dira Kantabriyatikan,
egiyak garbi esaten ditut,
batere ez da gezurrikan,
amabostgarrena ekarriya zan,
jaunak, estranjeritikan.

20/ Sarasua da mutill pizkor bat,
Txokolate ez da debilla,
Solaberrieta kasikan berriz
balorez oso abilla,
patroia, zuri emate'izkitzut
orra eskerrak nik milla,
beste bat arte, biba esaten det
San Nikolasko kuadrilla!

ITURRIA: Bertso-papera: "Imp. Macazaga, Rentería", Fernando Artola "Bordari", Ondarrabia.

Bertso-papera: "Elustondo.-Zarauz"; ez nuan apuntatu zeñi jaso nion.

BERTSO BERRIYAK

LENGUAN ORDAÑAK

- 1/ Milla bederatzi eun eta
gañera ogei ta amairuan,
bertso berriyak jartzera nua
artu ditzaten goguan,
Oriyotarrak arro xamarrak
juanak dira orainguan,
lengo beiaren larrua emen det
gordia nere okulluan

- 2/ Bigarrenari jarri beaiot
tokatzen zaion klasera,
jakiñ dezaten nola dabiltzan
ijito eta traperara,
San Pedrotarrak, orain bi urte
—akordatutzen al zera?—
zuek bezela, ezta geratu
difuntuaren antzera.

- 3/ Enteratuta arkitzen naiz ni
aurtengo pasadizuak,
arrota eta juanak ditugu
aurten gure ijituak,
zesto berriyak egingo'ituzu
eraman bauzu naibuak, (*sic*)
guk sobrantia badegu oraindik
len irabazitakuak.

4/ Antonio Mari, ez al zerade
oraindikan akordatzen,
oraintxe dala iru bat urte
nola etorri ziñaden?
egunsentiyan Kontxara juan da
marka guziyak probatzen,
banderakuan or geatu zan
besten putz-usaiak biltzen.

5/ Manuel Arrillaga izandu da
gizon ona eta justua,
bere denboran okasiyoric
iñon jarri gabekua,
merezi luke edukitzia
estatu baten modua,
zergatik beñere eztan izandu
zubek beziñ saltserua.

6/ Osaba illobak eta semiak
arro ibilli dirala,
edozeñek esango dizute
motibua badutela,
sei bandera eder gorbatarekiñ,
gañera bi kopa dela,
kostako zaio ijituari
marka au ondutzen onela.

7/ Aurten olako estropazorik
ez gendubela pensatzen,
lenagotikan oitua zera
aundiyaguak artutzen,
etxeko beiak eta zekorrak
guziyak danak galdutzen,
Txokolate ta kafe esniak
ez al dira gogoratzen?

8/ Urte betian gobernatutzen
euki degula gizona,
señale oraindik sobrate deula
len irabazi genduna,
lotsa gutxikin esaten dezu
gosiak euki deguna,
errukiturik utzi dizugu
aurten eraman dezuna.

9/ Naiz uste arren bazeratela
San Pedroko zarrak aña,
kostako zaitzu ordaindutzia
oiek egindako azaña,
gaizki esaka dantzatu dezu
nere ustetan mingaña,
Oriyo ortan zein da gizonik
baliyo dunik oik aña?

10/ Esaten dute juan zaizkiyola
Arrillagari urtiak,
bañan oraindik osasunakin
gaude animoz betiak,
mesederikan ez izan arren
baizik berentzat kaltiak,
zere denboran amaika bati
itxi dizkatzu atiak.

11/ Orra, kristabak, nola izaten dan
munduan zenbait griña,
ordañarikan etzan izango
ixillik egon baziña,
beti ijitua antolatzen da
izketan ain da apaña,
beste batian ondo pentsatu
nola dantzatu mingaña.

12/ Amabigarren bertsuarekiñ
au da nere despedida,
Asteasu gazte orreri
jarri nai diyot segida,
nai luke baña ezta irixten
bertsolariyen neurrira,
baldin oberik ez badu jartzen
egin lezake erretira.

ITURRIA: Bertso-papera: "Imp. Macazaga Rentería", Jose Angel Sarasola Olalde, Alzibar, Oyarzun.

BERTSO BERRIYAK

1/ Lendabizikok neriak ziran
da zuenak bigarrenak,
oraingo ontan jarriko ditut
guztiyetan ederrenak,
San Pedro ortatik etorri dira
izugarritzko ordenak,
besteri lotsak eman nai dizke
berak batere ez dutenak.

2/ Kulparik gabe esaten dezu
gu difuntuak gerala,
sinista zazu oraindik ere
sano arkitzen gerala,
ordañak jarri biar dizkizut
merezi dezun bezela,
aitormen on bat izan dezazun
bertsolari bat naizela.

3/ Milla bat bider ibiliya naiz
gizon onaren parian,
oraingo ontan ikusiko'ira
bertsolariyak zein dian,
iñola ezin gelditu neike
San Pedrotarren mendian,
lengua bezela ez nazute ni
arrapatuko sarian.

4/ Motiboik gabe artu dezute
bajaturik Txokolate,
señalaturik danak batian
nola esne eta kafe,
pakia beti ibilli izan da
zuengandikan aparte,
onen mendian urte batzutan
izan biarko dezute.

5/ Txokolate au zartu dalako
oso arrotzen ai dira,
Kantabri ontan ori gañako
arraunlariyak nun dira?
orain jo naiez arkitzen dira
nunbait orrekin benzida,
gu orain ere gertu gerade
beste bi baldin badira.

6/ Zertan esaten digu Joxe
motiboik gabe gezurrik,
galdu'itugula nola larru ta
igualmente ezurrik?
oso pobriak gerade baño
ez degu zure bildurrik,
Oriyo ontan beñere ezta
falta izango txekorrik.

7/ Amaika orlako gaizki-csale
sartu ziraden munduban,
olain txarra zu ziñadenikan
asko pentsatzen ez nuban,
bueltarik ainbat etzala izango
zuk ala usteko zenduban,
gure beiak kabitzeko ainbat leku
ez da zure ukulluban.

8/ Bertso oriyek jarri dituna
ai zer nolako gizona,
motibo ori eman dulako
ez da izango itz ona,
bere burubai ematen ai da
izugarrizko afana,
begi oker ori zuzendutzero
juan zinezke Vidaurrena. (2)

9/ Diferentezko gauzak dirade
nola leor da putzubak,
oin traiziyuak eztaguzkagu
oraindik danak aztubak,
Arrillaga orri irtenak zaizka
izugarrizko aunditxubak,
oiek guztiyak sendatuko'izka
Don Vidaur jaun medikubak.

(2) Donostia'ko okulista bat.

10/ Ia goguan artutzen dezun
zuk gazte onen esana,
naiz kasik iya betenayuen
gradura iristen naizena,
olain gaizki zu egotia nik
artutzen dedaden pena,
Vidaurrek sendatu ezin bazaitu
etorri zaitez nigana.

11/ Lau probintzitan nola izan diran
komeri izugarriyak,
bigarren bueltan jarri bieitut
gutziz arrazoi garbiyak,
oraindik ere ez gaitu ilko
nola gose eta egarriyak,
gaizki esaten jardun dirade
urdai gabeko zerriyak.

12/ Sekulan neri etzaizkit aztuko
Arrillagak esandako itzak:
"Gure aldian geio dirala
beti esanez zebiltzak".
Oraingo ontan aitortutzeko
moduban dirade gaitzak,
San Nikolasek kendubak dizka
San Pedrotarrari giltzak.

13/ Amaika bider esana zaude
gu ez gerala azkarrak,
egiyak garbi deklaratzetut,
apenas diran gezurak,
jaiotzatikan pizkorrak dira
gure zaiñ eta ezurak,
guk zuben putzak artu giñuben,
zuentzat gure puzkerrak.

14/ Arrazoi asko jarri dituzte
olain gaizki ta itxusi,
errespetua lendabiziko
egin biar da ikasi,
bên marka guzik borratuarren
alare ezin iritxi,
gora Mitxelena kuadrillarekin,
zu zera oien nagusi.

15/ Jun dan urtian nola ibilli ziñan
ez al zera akordatzen?
Donostiarren mendian kasik
antxen gelditu ziñaden,
zertan ai zera esaten beti
izan zeradela gallen?
bate banderikan gabe antxen zu
iya gelditu ziñaden.

16/ Zuek bezela bestiak ere
beti dabilta esperantzan,
sei urte oitan ibili zerate
bildurrik gabe arrantzan,
zuen gradu ori noizebait ere
mudatzia komeni zan,
Donostiarrentzat ordun bandera
urikan sartu ez bazan.

17/ San Pedrotarrak zuentzat ere
beti badute arrabiya,
bi urte ortan erakutsi'yozu
gutziz istillu gorriya,
zertan kristauak biar du izan
postura ortako tirriya?
aurten oriyek atzetik ziran,
aurretik Ondarrabiya.

18/ Merezi dute kuadrilla onek
gutzizko fama ederrak,
ainbeste gañakok nola diraden
zuen beso ta bularrak,
estu ta larri ibil'ituzte
oriyek San Pedrotarrak,
noizebait ere komeni zan da
gora Ondarrabitarrak!

19/ Neurtu ditut biar bezela
nik Joxe orren pausuak,
begi batetik artuba dauka
oso ziara lausuak,
tamaña onetan etortzen dira
mundu onetan kasuak,
zuriak itzak bakarrik ziran,
obek dirade bertsuak.

20/ Jarriko dizut nai dan tokiyan
egokitzen dan aukera,
onian ezin ezer eginda
zu jua zaude txarrera,
amaika txoro zure tabernan
engañatutzen ai zera,
naizun tokira azaldu zaitez
neretzat gauza bazera.

ITURRIA: Bertso-papera: "Elustondo - Zarauz",
Gregoria Ibargoyen zana, Orio.

BERTSO BERRIYAK

- 1/ Pasadizuak biar bezela
al banitza esplikatu,
bertso berriyak jartzera nua
gusto dubenak kantatu;
Donosti ortan giñadelako
noizbait bigarren gertatu,
orain San Pedrotar oriyekin
zeñek bear du burutu?

- 2/ Ejenplo piñak gaztetan artu
ona nai dunak zartzera,
notizi oiek juango zaizkitzu
belarriyaren ertzera;
irabazi'ezun urte ortan e
marka aundik egiña etzera,
len e askotan gelditu izan zan
San Pedro gure atzera.

- 3/ Oraintxen dala iru bat urte
bajatu giñala bera,
oietatikan notizi ori
allegatu da onera;
ogei ta zortzi milla pezeta
ta gañera bi bandera,
urte ortan e irabazita
ekarritakok gu gera.

4/ Orain bi urte giñala berriz
difuntubaren antzera,
orduban ere giñan bigarren
premiyuakin etxera;
zenbat aurrera pasa zaizkizun
akordatzen ez al zera?
aurten zedorri bosgarrenakin
putz-usai tarten or zera.

5/ Errukituta egin dutela
Irungo aldeko joera
oiek besterik ezin daneko
erremedyuak dira;
an trabesian bete giñuen
boltsikuk eta kartera,
Sarasua da irabaziya
milla pezta ta bandera.

6/ Gauza oriek nola diraden
jendiak ondo dakizki,
kasu orretan San Pedrotarrai
jarri biar dizket itz-pi: (1)
sei urtetan sei banderarekin
arro xamar dira noski,
iru urtetan irabaziyak
Oriyon dauzkagu zazpi.

(1) itz-pi = itz bi.

- 7/ Kafe-esnia artutzen degu
jaikita laister goizian,
txokolatia komeni bada
igual arratsaldian;
zenbaiti irteten zaio gezurra
auko zulua betian,
gure txekorrik eta beyikan
ez dute Pasai aldian.
- 8/ Txekorrak eta beiak galduta
sartu gerala etxera,
lotsarik gabe iritxi dira
ori paperan jartzera;
ez enpeñatu gezurrarekin
jendia engañatzera,
zenbat tresabi dauzkagun utsik
etorri ikusitzera.
- 9/ Oriyo ontan zein dan gizonik
baliyo dunik oik aña?
berak atzetik nola ibilli
eskasaguak bagiña?
bi estropetan guk degu aurten
markik aundina egiña,
bertsolarin bat billatu dute
bastante gutxi dakiña.

10/ Geren enplion segi dezagun
gu ijituak bagera,
toki askotan ikusten dira
Oriyon aña traperas;
automobil bat kargatu eta
denbora labur or gera,
aurreratuta emen dauzkagun
zesto berriyak saltzera.

11/ Ontara naizen ezkerro biat
beste kaso bat berritu,
baporiari arri tiraka
nola zaizkigun abitu;
au adituta gure aitonak
etziran gutxi arritu,
sufritu eziñak olako lanak
askotan ekartzen ditu.

12/ Oriyotarrak au ikustian
ai oien mugimentuak!
dudarik gabe egongo ziran
lenago preparatuak;
mendira juanda izanak dira
arriz beteta kolkuak,
aziyo ederrak eginda daude
erri ortako golfuak.

- 13/ Sujeto batzuk ikusi giñun
abiyatutzen korrika,
soldadu oiek baziruditen
zijuazela Afrikâ;
menditik laister ekin zioten
baporiari arrika,
erri ortatik ezta aparte
iñuzentien fabrika.
- 14/ Ez dira asko enpeñatubak
errespetua gordetzen,
lanikan asko badauke oiek
besteren ona sufritzen;
gizonak ez du ondo ematen
beti besteri mengatzen,
konzientziya kargatzen danik
ez al dezute pentsatzen?
- 15/ Amabostgarren bertsoarekin
nua bukaera billa,
gazte jende au osasunakin
ondo gertatu dedilla;
ai ijituen mugimentuba
ezta izaten debilla,
beste urte bat artian agur,
Arrillaga ta kuadrilla.

ITURRIA: Bertso-papera, "Elustondo - Zarauz".
Ez nuan kontuan artu zeñi jaso nion.

BERTSO BERRIAK

1/ (1)

.....

.....

.....

zortzi treñero jokatu dira
danak alkarren pelian,
aurten ederki azaldu dira
mutil pizkorrak nun dian.

2/ Gipuzkuatikan bost giñan eta
beste iru Bizkaiatikan,
premiyua ta banderarekin
arriskatziagatikan;
gazte jendia preparatuta
jun giñan Oriyotikan,
bi egunetan lasai ibilli
gera danen aurretikan.

(1) Puntu-lerro auek, eta beste guziak ere bai, papera puskatuta dagoala ta bertsoa ezin osatu degula esan nai dute.

3/ Donostiarrak ziran bigarren
lendabiziko jayian,
Ondarrabiya aurrera pasa
zitzaion bigarrenian;
alare beti kuadrilla ori
dabill umore onian,
zortzitatikan irugarrengo
gelditu diradenian.

4/ Du Amaikak-Bat izena eta
Donostiyakuak dia,
erri askotako arraunlariyak
dauzkaten soziedadia;
oiek kastuben kupirik gabe
preparatzen omen dia,
oraindik geio kostako zaie
bandera irabaztia.

5/ deskuiduak
..... munduan,
..... Arrillagak'e
zer suerte izan ...duan;
Aginaga ta orlako asko
gertatu oi diran moduan,
aurten San Pedro ibilliya da
banderatikan kanpuan.

6/ Beren ustetan Kantabri ontan
zeudenan kanpeonatu,
aurten bostgarren premiyaikin
San Pedro zaigu geratu;
uste etzuten kuadrilla asko
aurrera zaie pasatu,
zer kontatuba izango zuten
guk ori egin bagendu.

7/ Zerbaiten poza izan dezaten
lengo kuadrillak zartzera,
orain guk lana egiten degu
oriyen lengo antzera;
zer edertasun daukagun emen
nua adierazitzera:
mantxarik gabe irabaziyak
dauzkagu amabost bandera.

8/ Tolosatik bi, Zarauztikan bat,
beste bi herriz Irundik,
Getariarrai irabazita
seigarrengua Bilbotik;
beste zortzirak Donostitikan
lana eginda gogotik,
amabostgarren ori aspaldi
ekarri gendun Frantzitik.

- 9/ Iño...ian ez gijuazen
usariyu oi galtzera,
bikaiuari aldez aurretik
eman giñun aditzera;
juan giñan iru bandera berri
aurtengok bedeinkatzera.
lenguak berriz eraman giñun
oiek akonpañatzera.
- 10/ Tolosan jartzen dira premiyok
beste erritako legera,
puntujiyo ortara San Juanetan
dauka jendiak joera;
irabazteko gaña bentaja
an ere lasai atera,
Solaberrietak ekarri zigun
ango lenengo bandera.
- 11/ Lana egiten dubenai beti
tokatzen zaio jornala,
Txokolate da irabaziya
jokua ta bi batela;
Sarasua da orain sasoian
orduan oiek bezela,
bi arraunian Oriyon dago
Gipuzkoako txapela.

12/ Amabigarren bertsuarekiñ
bukatzera nua salla,
iñora ezin jua gindezke
patroi obiaren billa;
urte askotan aurten bezela
ondo portatu dedilla,
gora Oriyoko arraunlariyak,
Mitzelena eta kuadrilla!

ITURRIA: Bertso-papera, "Elustondo - Zarauz";
ez nuan apuntatu zeñi jaso nion.

**BERTSO BERRIYAK
MARZIAL URTXEGIAK JARRIYAK**

**GORA ORIYOTARRAK!
GORA AMAIKATARRAK!**

- 1/ Milla ta bederatzi eun da
oi ta amairugarren urtian,
bertso berriyak jartzera nua
arraunlariyen artian,
zortzi trainera oso ederki
jokatu dute Donostiyako playian,
arraunlariyik etzaigu azaldu
Oriyotarren aurrian.

- 2/ San Pedrokuak galdezka daude:
"Oriyokuak nun zian?",
berai begira jarriyak daude
presentatuta ontzian,
ogei segundo gutxienezko
kendu zioten auntzian,
beste emeretzi konpleto herriz
artu dizkiote onuntzian.

3/ Pasai San Pedro urrengo urteko
preparatuta egongo da,
urte betia pasia dô ta
ustez badôla denbora,
aurten bezela obe du ez jua
gaubez prueba egitera,
bestela berriz bandera ere
juango da Oriyo aldera.

4/ San Pedrotarrak sei urte ontan
eraman dute sei bandera,
abildadia zegon edo ez
ortikan kontubak atera,
aurtengo urtian etorri zaigu
Donostiarrak austerera,
bañan alare Joxe-Maritarrak
utzi dituzte atzera.

5/ Oriyotikan etorri zaigu
bestante jende trebia,
jua dan urtetan ezta egondu
iñork aitatu gabia,
uste dedanez ekarri dute
sobrante abildadia,
beren traiñera berri orrekin
aidian ibilli dia.

6/ Ondarrabiya premiyetan
sartu zaigu bigarrena,
berai lagunduz aldamenian
Oriyotarrena aurrena,
Santurzetar gizon famatuk
tokatu dira laugarrena,
oik e kontentu juan dirade,
eztue premiyo txarrena.

7/ Arraunlariyak nai dubenak
Oriyo aldera beiratu,
bakarka ere egiten dute
dotore samar jokatu,
bat Txokolate, Manterola da,
koñado Inazio Sarasu,
aurtengo urtian bi bandera
ekarriya zera zu.

8/ Aurtengo urtian iru bandera
sartu dituzte erriyan,
kuadrilla ederra ekarri dute
Jaungoikuaren graziyan,
San Pedrotarrak paliza ederra
artu dute Donostiyan,
Oriyo austekoik ezta egongo
Kosta Kantabri guziyan.

- 9/ Oriyotarrak mutill berriya
ekarri dute ankian,
batere etzula orrek baliyo
esandakuak bazian,
baña alare kontrako guzik
utzi dituzte atzian,
ojala ola etorriko balitz
berriz urrengo urtian.
- 10/ San Pedrotarra, desapiyoka
alperrik zertan ai zera,
bakarka ere, nai baldin badu,
Oriyo kontra atera,
Sarasu orrek kendu diote
aurten ere bi bandera,
ez txalopetan, ez traineretan,
allegatutzen etzera.
- 11/ Oriyon badô abildadia
nai dubenak aditu,
aurtengo urtian iru bandera
ateriak e baditu,
aurten eindako marka oiekin
egin leiteke arritu,
San Pedrotarra gauza ez dalako
bostgarren zaigu gelditu.

- 12/ Aurrera ola segitu diyou
guk lengo lege zarrari,
bestela igual leku txarrera
egingo gera erori,
bentaja ederra kendu diyote
aurten San Pedrotarrari,
neronek ala desio nuben,
biba Oriyotarrari!
- 13/ Oriyotarrak merezi'ituzte
eskerrak eta graziyak,
aurtengo urtian triñero ortan
presentatu'ian guziyak,
eraman dituzte premiyua eta
beren bandera guziyak,
propina txarrik eman dutenik
ezin esan Donostiyak.
- 14/ San Pedrotarra erretiatu da
aurten ederki etsita,
ezer ein gabe gelditu zaigu
zerbait bazala asita,
kuadrilla ori balijuake
bên treñerua utzita,
Oriyok aurten eamango zitun
erremolkiak e eantzita.

15/ San Pedrotarra oiekin ere
jarri gaude arritzen,
etorri dira seigarren aiek
kaka-usaia aritzen,
abildaderik eztauke eta
nola etzuen segitzen,
Oriyotarran aurtengo lanak
eztiyo onik egiten.

16/ Donostiarrak, segi zazute
asi zeraten lanian,
aurtengo urtian ibilli zâte
San Pedrotarren gañian,
gaizki esaka ai omen dira
jendiak diyotenian,
baro alare ez dia sartu
Amaikak-Bat'en aurrian.

ITURRIA: Bertso-papera, "Imp. Macazaga - Rentería", Gregoria Ibarгойen zana, Orio.

(1934)

Estropada au Agorraren 9 ta 16'an jokatut ziran. Sei treñeru ziran, ta onela gelditu ziran: lenengo, Orio; 2'gn.: San Pedro; 3'gn.: Ondarrabia, legorrekoa; 4'gn.: Donostia; 5'gn.: Sestao; 6'gn.: Ondarrabia, mariñelak.

Ta Axentxiok jarri zituan bertsoak, bere erriko arraunlariak goratzearren:

BERTSO BERRIYAK

- 1/ Pasadizuak adierazteko
ipiñi naute birian,
milla urte ta bederatzireun da
oi ta amalaugarrenian;
bost bandera eder sartu dirade
Oriyoko erri noblian,
ortik kontuba atera leike
arraunlariyak nun dian.

- 2/ Aurten lenengo treñero-estropak
Bilbon zaizkigu jokatu,
premiyorikan onena zaie
Sestaotarraí tokatu;
Agorrillaren beatzin gera
berriz Donostin probatu,
emendik bueltan ez dira juanak
etorri bezin kontentu.

- 3/ Estropa ortatik bigarrenakin
etorri giñaden baña,
txalupa zuten luzeagua,
lijerua ta ariña;
enbarkaziyo igualtsuakin
danok jokatu bagiña,
Bilbaon bertan azalduko zan
Sestaotarren azaña.

4/ San Pedrotarren konsuelua
Bilbon Oriyok galduta,
landua jotzen jardunak dira
kankarta zarrak artuta,
beti burutik ibili naiak
orlako lanak ditu-ta
jokatu dira erri askotatik
arraunlariyak sartuta.

5/ Arrillagaren erronkak aurten
etzuten asko baliyo,
“Bire erdiyan daukat bandera”
esaten zuben propiyo;
ipurdikua artu du prankok
ori dalako meriyo,
galdu dubenak or konpon bitez,
kontentuz dago Oriyo.

6/ Bost erritatikan sei treñero
Donostin gera jokatu,
or jartzen duten biaje ori
zeñek lenago pasatu;
banderakuan kuadrilla asko
zaizka aurretik plantatu,
aurten San Pedro bigarrenakin
izan liteke kontentu.

7/ Lendabiziko Oriyokua,
San Pedro da bigarrena,
Ondarrabitar legor aldeko
kuadrilla irugarrena;
Donostiarrak dira laugarren,
Sestao da bosgarrena,
Ondarrabiko arrantzaliak
seigarrengo ta azkena.

8/ Estropa orrek premiyua du,
ez da izaten apustuba,
funtziyo ori ikustia da
jende askoren gustuba;
zer kantidade partitzen duten
eztadukagu aztuba,
portatzen zaigu Donostiyako
Ayuntamentu prestuba.

9/ Aita Mañuel, erri guztiya
jarriya zenduben pozak,
espero zendun premiyo onena,
bandera eta trabesak;
idea oiek ez dira izan
guretzako aldrebesak,
aurten ez dizu asko luzitu
automobillen karrozak.

10/ Lenbizikuan erretiratu
giñadenian Bilbotik,
indar gutxitxo ote gendukan
esaten zuten gugatik;
berak naikua euki balue
ezin ekarri kanpotik,
banderakuan Sestaotarrak
sartu zaizkate aurretik.

11/ Guk ez dakigu erreparuan
jendia nola jarri'an,
zenbait ez dira eskarmentatzen
txanponak bota artian;
Oriyotikan Donosti aldera
kamiyotikan urrian
aditzen degu billete ederrak
galdutakuan zein dian.

12/ Mutillak zintzo kunplitzen dute
beren patroien ordena,
atzera eta aurrera bizi
ibili're bai arrauna;
asi bezela iristen dira
kanpora eta barrena,
bildur piska bat izan zazute
ortan Oriyotarrena.

13/ Nolanaikua ez da izan aurten
Oriyotarren joera,
txikiyak ere sartuko ditut
danak aundiyeñ sallerá;
zer interesa ekarri duten
orain nua esatera:
ogei t'amabost milla pezeta,
lau kopa ta bost bandera.

14/ Ogei ikurrin eta lau kopa
ayuntamentu batera,
San Nikolasko gazte jendiak
ekarri ditu onera;
saiatu arren batzuek ezin
dute alerik atera,
Oriyon bada erri guztiya
tapatzeko lain bandera.

15/ Oriyotarrak toki txarretik
ziranian suertatu,
Sestaotarrak burla egin naian
etziran gutxi arrotu;
orregatikan giñan nerbiyo
danak altxata jokatu,
San Pedrotarrak bezela ziran
gure atzetik gelditu.

16/ Bakarrekuen pasadizuak
biaitut adierazi,
San Pedro egunez Irunen nola
Manterola zan lenbizi;
bestiak erraz konpontzen ditu,
Txokolate ezin ausi,
bolara ontan bi arraunian
Sarasua da nagusi.

17/ Bertso berriyak jarri ditugu,
gusto dubenak kantatu,
sei igandetan sei estropada
ditugulako jokatu;
berriz ortara guazeneko
ez degu iñor markatu,
gelditu gera Kosta Kantabri
daneko kanpeonatu.

18/ Disponitu det bertso onekin
azaldutzia azkena,
danak ikasten saia zaitetze
al dezuten azkarrena;
zuk badakizu nola ibili
zeure atzeko arrauna,
gora Oriyoko gazte kuadrilla
eta patroi Mitxelena.

ITURRIA: Bertso-papera, "Elustondo - Zarauz",
Gregoria Ibarгойen zana, Orio.

(1935)

Estropada onen lenengo saioa, Agorraren 8'an egin zan; bigarrena, berriz, 19'an, izugarri itxaso zakarra zegoalako, 15'an eta 17'an ezin jokaturik.

Bañan lenengo egunean ere oso txarra zegoan itxasoa, eta, beren txandan aurren zijoazelarik, treñerua urez bete egin zitzaien eta beren buruak itxasora bota ta igari asi bear izan zuten Orio'ko arraunlariak.

Gañontzeko treñeruak onela gelditu ziran: lenengo, San Pedro; 2'gn.: Ondarrabia, legorrekoa; 3'gn.: Sestao; 4'gn.: Donostia; 5'gn.: Ondarrabia, mariñelak.

San Pedrotarrak berealaxe jarri zizkioten bertsoak burlaz Oriotarrai. Ta Axentxio Txankak erantzun zien.

Aurreko urtean, 1934'garrenean, Orio'ko Pello Saikola'k ere bertsoak jarriak zituan San Pedrotarren kontra. Ta auek, 1935'garrenean estropada irabazi ta jarri zituztenetan, Pello arren bertso bati iru bider erantzun zioten: 8, 9 ta 13'gn. bertsoetan. On-

dotxo sartua zeukaten nunbait Pelloren ziria. Komeni da, beraz, onek bere bertso ontan zer dion jakitea:

Bei zar bat aurten jan omen dute
dana lanparoiz betia,
nola naezute klase arrekin
txalupa azkar juatia?
estropa oietan artuba aña
izango dute botia,
ez dago ola osaturikan
esposatzeko dotia.

Ona orain 1935 urteko bi jarri-aldiak:

BERTSO BERRIAK

1/ Emeretzireun urtez gañera
ogei ta amabostian,
estropada bat jokatu degu
Agorrillaren zortzian,
bost erritako arraunlariak
izan gera Donostian,
Oriotarra geratua da
uste gabeko tokian.

2/ Beren ustetan ekarri zuten
txalupa ona ta ariña,
beste danari irabazteko
asmu orretan egiña,
asi ta bela puskatu dute
ontziak zuen makiña,
uste det ori izandu dala
kartoiarekin egiña.

3/ Gizon askori aditu diot
neurritz fuerako zala,
au esan arren ezta mudako
Oriyotarren azala,
neronek ere pensatu nuan
zerbait gertatutzen zala,
urrengo urtian zuzena ekarri
San Pedrotarrak bezela.

4/ Orio ondo aterako zan
ura egon balitz geldia,
itxasoak ere egun orretan
izan zuan gaizto-aldia,
txekorrak eta zikirok jan ta
mutillak pixu aundia,
kargiak errez menderatzen du
indar gutxiko zaldia.

5/ Lenbizikuan suerte txarra
izan zuana Oriyo,
jendia frankok ikusi zuan,
gezurrak ez du baliyo,
bigarrenian ere nere ustez
ezta askorikan iyo,
Ondarrabiko baserritarrak
naiko lana eman diyo.

6/ Ondarrabian iru kuadrilla
oso motelak ez dira,
aukeratzeko arraunlariak
mutill ederrak badira,
oietatikan ondo unitua
etorri egingo balira,
urte gutxien buruku oientzat
diruak eta bandera.

7/ Arrillagaren mobimentuak
oso motelak ez dia,
orrek ederki billatutzen du
itxas gañian bidia,
gaztetatikan artuba dauka
arraun-laneko idia,
Oriyon bada indarra baña
San Pedron abilldadia.

8/ Oriyotarren esana oraindik
guri etzaigu aztutzen,
zernai esan da ere oriyek
ez dira asko lotsatzen,
bei lanparoyaz betekua guk
jan degula publikatzen,
ganadu txarrik Pasai aldian
beñere ez da sartutzen.

- 9/ Oiek uste'ute berak bezela
gu ijituak gerala,
zernai esan da ere askori
batere etzaio ajola,
juan dan urtian bertsuetan jarri
guk bei zarra jan degula,
aurten Oriyon jan omen dute
ardi zarraren gibela.
- 10/ Erronka eta afana bazan
lenago oien artian,
bandera ez diola iñork kenduko
beste amar bat urtian,
mingaña askotan dantzatutzen da
kasik nork bere kaltian,
aguro samar ikusi degu
San Pedroko erri maitian.
- 11/ Zenbait gizonek beti izaten du
inbiri edo zelua,
esanaz gure txuletak aña
badala beran talua,
non ote dabill juan dan urteko
kanta-jartzalle lelua?
memoriatik nastu ote dan
dadukat errezelua.

12/ Usteagatik ez da erreza
lanari artzen neurriya,
ederki samar nekatzen dira
besuak eta gerriya,
Orion aurten eroria da
bi egunetan arriya,
piska bateko galdu omen ditu
kale eta baserriya.

13/ Diferentia izaten dira
leiu eta atia,
Oriotarrak trabesarako
bazuten borondatia,
irabazdunak kontentu daude
galdu dutenak kaltia,
aurtengo ontan sobratu degu
espozatzeko dotia.

14/ Danan aurretik etorritzeko
egiña zuten promesa,
ogei zazpiri bildurrik gabe
bota ere bai trabesa,
egun orretan askok egin du
pensamentu aldrebesa,
beste batian irabazteko
pazientziya ar beza.

15/ Paper onetan amabost bertso
egin ditugu guk jarri,
ez dira txarrak gusto dubenak
egiteko irakurri,
Euskal-errian gorroto txarrik
ez diogu biar alkarri,
urrengo urtian aurten bezela
osasanakin etorri.

ITURRIAK: Bertso-papera, "Guernica. - Imp. Artística y Hormaechea", Inazia Etxabe, Soutz base-
ria, Oikina.

Bertso-papera, "Imp. Macazaga. - Rentería", Usur-
bil'ko Egaluze-txiki baserritik.

Paper onen aldaketak: 3/7: urrengo urtian fuertia
ekarri; 10/8: ijituaren tartian; 14/4: botatzen zuten
trabesa.

BERTSO BERRIYAK

- 1/ Itzalditxo bat ateratzeko
ematen digu goguak,
esplikatubaz arraunlariyen
aurtengo deskalabruak,
Pasai aldetik etorri dira
Oriyora abisuak,
ez dizkigute ondo azaldu
gertatutako kasuak,
alkar probatu bentzitutakon
jarri oi dira bertsuak.

- 2/ Obligatubak arkitzen gera
emendik bueltak jartzera,
ezta komeni aurten jeixtia
Pasaitar oien oinpera,
pasadizuak adierazteko
oraintxen degu denbora,
Donostitik e ezta San Pedron
Oriyon aña bandera,
zuek joateko koraje gutxi,
guk Bilbaokok gañera.

- 3/ Bizkaian ere arraun-laneko
martxa gendukan asita,
Bilbao aldera egiña degu
aurten lenengo bisita,
jendia pranko arritu da an
gure lana ikusita,
jokatu diran kuadrilla danoi
bi estropa irabazita,
banderarekin etorri gera
marka guztiyak ausita.
- 4/ Beste erritara ezta tiratu
Oriyora aña tanto,
San Pedrotarrak abillak dira
gu bizi bagiña tonto,
oraingo oien bertsuen bueltak
jarrita dauzkagu pronto,
olatu aundiyak azpiratuta
ondatu giñan da kito,
kontentu gera egun orretan
iñor ez danian ito.
- 5/ Txalupa dana urez beteta
giñadenian gelditu,
gu ikusita auzo-erritarrak
etziran asko kupitu,
Getariarrak aldamenian
txaloka oso kontentu,
arraun-lanian badegu oraindik
oiek ainbeste talentu,
berak baliyo ez dutenian
besterena ezin sufritu.

- 6/ Itxasuaren zakar-aldiyak
ekartzen dituben lanak,
biraje ori itxura txarren
egiña zuten geienak,
Ondarrabiñ e badira zerbait
esango lutekienak,
giro obian joka ziteken
nai izan bazuten denak,
suertiaren billa zebiltzan
bestela bildur ziranak.
- 7/ Jarri digute Oriyo ontan
gizon astunak daudela,
karga aundiyak zaldi txikiya
azkar bajatzen dubela,
mutillak arin konserbatzeko
oitura duten bezela,
Pasaitarrentzat utziko degu
ardi zarraren gibela,
guk oraindikan sobre daukagu
zekor gaztien okela.
- 8/ Oriyotarren txalupa dala
kartoiarekin egiña,
kaso onetan gezur kontari
jardun dira alegiña,
egun orretan urez beteta
ondata giñaden baña,
bost jokatuta lautan Oriyok
aurten e markik aundiña,
ondo ikasten saia zaitezte
nola dantzatu mingaña.

- 9/ Momentu artan kastiguba zan
nunbait guretzat erori,
gauz orregatik sufritu eziñik
ezin eduki iñori,
olatu aundiyak pare-parian
altxa zitzaizkigun guri,
pesta jartzera ustez juan eta
amalau gizon igari,
munduban bizi geran artian
etzaigu aztuko ori.
- 10/ Gaztetatikan arraun-lanian
omen ziraden abitu,
bidia erraz billatze'uela
askotan degu aditu,
danak dakite egun orretan
gu nola giñan gelditu,
abil-usteko asko leno're
menderatu izan ditu,
obe dezute itxasuari
zuek ere obeditu.
- 11/ Bere tokitik giro onian
eldutzen zaio lanari,
obeditzia ez al da obe
itxaso indartsubari?
kaso orretan Pasai aldetik
bada afana ugari,
San Pedron dala abildadia
asi zaizkigu kontari,
alkarren ondon proatutakon
ikusiko da gauz ori.

- 12/ Erri koxkor au bajatu naian
San Pedrotik dira asi,
leno eginda dagon lanari
erreparatu lenbizi,
Oriyotarren bateko lautan
jokatzen dira ikusi,
ala ere guk aña bandera
ez dituzte irabazi,
abildadia ona da baña
indarra dago nagusi.
- 13/ San Pedrotarren desaide danak
etzaizkigu akordatu,
Ondarrabiko baserritarrak
nai lituzteke goratu,
gure onduan bi jokatuta
atzetik dira geratu,
lenbizikua omen zuten da
ezta oiekin zer arritu,
kuadrilla orrek azaiñ ederrak
oraindik egingo ditu.
- 14/ Donostiyako funtziyo oyek
diradenian bukatu,
Portugaleten estropa ederrak
segidan dira jokatu,
an egin degun lanikan ere
ezin gentzake ukatu,
bentaja aundiyan Oriyotarrak
aurretik giñan gertatu,
premiyua ta kopa artuta
etorri gera kontentu.

15/ San Pedrotikan Oriyorako
bertsuak jarrigatikan,
ez gera asko apuratutzen,
ez, gauza orrengatikan,
edozer itza ateratzen da
zenbait gizonen autikan,
usteko zuen etzala izango
lenguaren ordañikan,
juan dan urteko bertsolariya
sano dago oraindikan.

16/ Portugaleten arraunlariyak
juntatu dira propiyo,
Ondarrabitik bi ziran eta
Sestao eta Oriyo,
iñork ez nuke bajatu nai nik,
ezin nezake gora iyo,
jendia prankok pasiatu du
estropa dala meriyo,
aurtengo lana bukatu da ta
beste bat arte ariyo.

ITURRIA: Bertso-papera, moldiztegiaren izenik ga-
bea, Gregoria Ibargoyen zana, Orio.

(1940)

Agorraren 8 ta 17'an jokatu ziran estropadak, bost treñeru artean, ta onela gelditu ziran: lenengo: Orio; 2'gn.: Ondarrabia; 3'gn.: Amaika-Bat; 4'gn.: Loiolatarra; 5'gn.: Santurze.

Onek, lenengo saioan Orio'k minutu bat bañon geiago atera ziolako, etzuan bigarren-goan jokatzetik izan.

Orio'ren aldeko bertso auek, Txankak jarriak dira.

BERTSO BERRIYAK

- 1/ Milla urte ta bederatzireun
ta gañera berrogeyan,
estropa ederrak jokatu dira
Bilbaon da Donostiyan,
deseoz genduen funtziyu oiek
ikusteko aspaldiyan,
banderak daude premiyuakin
San Nikolasko erriyan.

- 2/ Bilbaotikan Oriyotarrak
aurten zituzten eskatu,
jendia nola juntatuko zan
burua zuten askatu,
iñork asmorik etzeukan baño
laister ziraden prestatu,
ango bandera irabazita
amar segundo sobratu.

- 3/ Estropa oiek ikusitzeko
Bilbaon zegon kuadrilla,
andre ta gizon, neska ta mutil,
berrogei ta amar milla,
oien guztiyen artetik bazan
naiko txalua ta bulla,
Oriyotarrak ziraden juanak
ango banderaren billa.

- 4/ Dirua pranko sartu dalako
aurten Oriyo aldera,
alaitasun bat allegatu da
basarrira ta kalera,
arraunlariyak portatu dira
aurreko zarren legera,
bi bander'aundi ekarri're bai
lenguen aldamenera.
- 5/ Oriyo ontan sekulan ezta
faltatzen arraunlariya,
orregatikan dago erriyan
bandera-pilla aundiya,
aurten'e ez dute gutxi ondratu
gure kosta kantabriya,
bere kuadrilla zuzenarekin
goratu zagun patroya.
- 6/ Gipuzkuan e jarri diyote
Bizkaikuari segira,
Agorrillaren zortziyan jo da
Donostiyako pelira,
batzuek bian gelditu ziran,
besteak iyo mendira,
gustora asko egonak gera
arraunlariyai begira.

7/ Amabostian berriz jotzeko
txalupak ziran trukatu,
kuadrillak pronto an zeuden baño
egualdi txarra tokatu,
juradu ziran gizon prestuak
amazazpira luzatu,
egun orretan guztiz estropa
ederrak dira jokatu.

8/ Ogei ta amazazpi segundoz
Oriyok du irabazi,
orreatikan etorri ziran
beren bandera ta guzi,
azkenenguan Amaikatarra
ibilli dana lenbizi,
datorren urten Donostiarrak
jarriko dira nagusi.

9/ Oraindikan e gustora asko
juango litzake urpera,
ura artuta okertu're bai
estiborreko aldera,
Donostiarrak poztu ziran da
pixka bat erten aurrera,
lengo kartoizko txalopa zarrak
irabazi du bandera.

10/ Erremint ona nai degu danok
izan ezkeru aukera,
zer gertatu dan jende geiena
emana dago tankera,
naiz asko tira txalopa zarra
mantso juaten da aurrera,
arrimatutzen etzegon errez
Donostiyako kaiera.

11/ San Nikolasek urte askotan
egiten ditun morubak,
ekartzen ditu banderak eta
berebiziko dirubak,
indar aundizko belarrak dauzka
Oriyoko ingurubak,
esan gentzake jarri dirala
Kantabriyako burubak.

12/ Zer dan ederki proatzen dute
estropetako trantzia,
or komeni da arraunarekin
urari fuerte eltzia,
uste eztala gerta liteke
datorren urten galtzia,
gauzik onena izango degu
pazientziya artzia.

13/ Oriyotarrak estropadetan
dabilkiten suertia,
konsideratzen jarri ezker
izango da dezentia,
ezta bastante arrauna artuta
edozein moduz juatia,
ogei ta zortzi bandera daude,
kopakin maia betia.

14/ Urdangarai'tar Jose Maria
gaizki portatu etzeâ,
urte batian bi bander'aundi
sartu dituzu etxeâ,
jendiai gusto ematiâtik
funtziyo ori jartze'a,
arraunlariyak, bizi zaitezte
danok anien antzeâ.

15/ Amabostgarren bertsuarekin
banua bukatutzera,
orra jendia biar bezela
garbi eman aditzera,
arraunlariyak enpeñatu naiz
al dana goratutzera,
gusto dubenak paper ontatik
saiatu ikasitzera.

ITURRIA: Bertso-papera, "Tip. Elustondo - Zaraus", Gregoria Ibarroyen zana, Orio.

(1942)

Estropada au Agorraren 6'an ta 13'an jokatatu zan sei treñerurekin. Onela gertatu ziran: 1'gn.: Orio; 2'gn.: San Juan; 3'gn.: Ondarrabia; 4'gn.: Loiolatarra; 5'gn.: Amak-Bat, 6'gn.: Armada.

Ona emen Axentxiok jarri zituan bertsoak:

BERTSO BERRIYAK

1/ Bertsuak ipintzera
orain naiz abian,
milla bederatzireun
berrogei ta biyan,
egiya esateko
Agorraren seiyan,
estropadak jokatu
dira Donostiyan,
ederragorik ez da
izan aspaldiyan.

2/ Txalopak trukatuta
berriz amairuban,
danak jokatu dira
len oi dan moduban,
askok irabaztia
zeukaten buruban,
bañan etziran asi
leku seguruban,
aurten etzan atsegin
gure inguruban.

3/ Galdu dutenentzako
izan da ekaitza,
San Juandar oriyek
zuten esperantza,
argatik ibilli da
dirubaren dantza,
gutxi dira ta beti
azkar juten gaitza,
Oriyotarren kontra
alperrik dabilta.

4/ Onela ikusten dira
zenbait arraunlari,
obeditu nai-eza
geiago danari,
esperantz onak eman
erri guztiari,
gero jendiak bota
dirua ugari,
txaskua pasa zaie
San Juandarrari.

5/ Lengo azañai ondo
erreparatuta,
San Juandar batzuek
zeuden arrotuta,
baña bandera gutxi
erriyan sartuta,
larogei bat segundo
Oriyok kenduta,
asko gelditu dira
sakela ustuta.

6/ San Juandarra etzan
aurten dudan asi,
espero zun jartzia
guztiyen nagusi,
nola etorri ziran
zituzten ikusi,
karroza eramateko
aingeru ta guzi,
txoriak Oriora
juan zaizke igesi.

7/ Galdubak min ematen
oiek lanbidiak,
ixilikan bagaude
egin du guriak,
arrika jardun dira
mutil dotoriak,
orlakorik merezi
eztu baporiak,
ori ez du egiten
persona nobliak.

8/ Beti aitortzen degu
egindako lana,
igaz zan Ondarrabi
bandera eramana,
urte bete osuan
iduki du sona,
argatik trabesian
alako apana,
aurten Oriotarrak
jo dute kanpana.

- 9/ Kanta-paperan jarri
ditzagun egiyak,
pixka bat onratubaz
estropalariyak;
Ondarrabitik alai
ziran etorriyak,
trabesa galdu eta
oien arrabiyak,
kukubak oker juak
San Juan da biyak.
- 10/ Estropa oiek dira
ederki ikusi,
iñork ere etzuen
ematen itxusi;
lau jokatu ditugu,
danetan lenbizi,
batian galtzen bada
seitán irabazi,
Oriyo arraunian
daukagu nagusi.
- 11/ Portugaleten ere
degu jokatuba,
guretzat gertatu zan
ango merituba;
periodikuetan
askok du letuba,
Gobernadore jaunak
dauka juzgatuba,
Oriyo Kantabriko
kanpeonatuba.

- 12/ Domingo Mitxelena
daukagu giyari,
erreparatutzeko
bere kuadrillari;
bentaja kendurikan
beste guztiyari,
entregatu dizkate
Oriyotarrari
bi bandera eder ta
kopa aundi ori.
- 13/ Kopa aundi eder ori
zanian ikusi,
Bizkaiko estropetan
bero giñan asi;
ango eskola ere
genduen ikasi,
iru urtetan degu
garbi irabazi,
entregatu digute
bandera ta guzi.
- 14/ San Juandarra jun zan
kopa orren billa,
esperantzetan bazan
gutxiyenez milla;
Domingo Mitxelena
etzeguen debilla,
ondo preparatuba
zedukan kuadrilla,
irabazi ditu ta
probeta dedilla.

15/ Kontu oiek aditu
dizkagu askori,
zer esaten zioten
Portugaleteri:
“Aurten jokatzten bada
kopa aundi ori,
guk kenduko diegu
Oriyotarrari...”
Tira biarko zaio
geio arraunari...

16/ Donostiyan dalako
petardo emana,
tripako miñez zegon
or galdu duena;
Bizkaitik ekarri nai
zuten osasuna,
aste erdirako zan
ensaiora juna,
Loiolatarrak austen
bazan naiko lana.

17/ San Frantzisko eguna
ortarako autu,
meza nagusi on bat
zuten aukeratu;
banderak eta kopa
danak bedeinkatu,
kanpotarra're asko
zitzaigun juntatu,
egun oberik ezin
gentzake pasatu.

18/ Funtziy'ori bukatu
danian elizan,
estropada polit bat
segiran da izan;
neskatxak aurrekua
oien alabantzan,
kabitu eziñikan
jende asko plazan,
makiña bat persona
ibilli da dantzan.

ITURRIA: Bertso-papera, "Tip. Elustondo - Zarranz", Inazia Etxabe, Oikina.

(1951)

Onako bertso auek ere, Axentxiok jarriak dira. Batean irabazi bestean galdu, estropadetako gora-berak txandaka izaten ziralta ta ez publikatzia obe zala esan omen zioten. Ala, etzituan paperak atera. Bañan errian ondotxo zabaldu ziran. Gure eskuetara makinaz idatzitako orri batean etorri dira. Orri ori, Errikotxia bertsolaria zanaren billoba dan Kristino Arruti Lertxundi'ri zor diogu. Berak, Orio'ko arrantzale bati jaso omen zion. Arrantzale onek orria bere karteran ibiltzen du.

Agorraren 2'an eta 9'an jokatu zan estropada au. Sei treñeru ziran. Onela gertatu: lenengo: Orio; 2'gn.: Ondarrabia; 3'gn.: Donostia; 4'gn.: Getaria; 5'gn.: Zarauz; 6'gn.: Zumaia.

BERTSO BERRIYAK
(Doñua: *Pello Joxepe*)

- 1/ Milla pasatu bederatzireun
berrogei ta amaika urte,
Kristo mundura jaio zanetik
asi ta orain bitarte;
aurten Donostin txalopa ta arraun
estropak jarri dituzte,
zein dan onena ezin antzeman
jokatzen ikusi arte.

- 2/ Sei erritako arraunlariyak
bildu gera Donostiyan,
txalopa aundiyan asiera zan
Agorreko illaren biyan;
bigarrenkoa berriz segiran
Agorren bederatzian,
etzan estropa ederragorik
ikusiko aspaldiyan.

- 3/ Estropa oiek ikusitzeko
askok zeukan inbiriya,
lendabiziko Oriyotarra,
bigarren Ondarrabiya,
irugarrenko Donostiarra,
laugarrenko Getariya,
bosgarrenkoa Zarauztarra ta
azkenengoa Zumaya.

4/ Aurten lenengo onra Oriok
ekarri du Tolosatik,
bigarrenkoa Lasartetikan,
irugarrena Irundik;
laugarrenkoa Zarauztik eta
bosgarrena Donostitik,
kanpeonatua irabazita
seigarrenkoa Bilbaotik.

5/ Aurten Orion arraunlariyak
ondo zaizkigu portatu,
beste tokitan ezta olako
edertasunik gertatu;
sei erritako premiyorikan
onenak zaizke tokatu,
urte batean ainbesterekin
nai luke kanpeonatu.

6/ Alkarren bildur aundiyan ziran
estropa jokatzan asi,
bañan eztute arrauna ibiltzen
guztiyak igual ikasi;
Oriotarrak bentaja aundiyan
danen aurretik lenbizi,
Sarasua ta bere kuadrilla
gelditu dira nagusi.

7/ Sarasuaren kuadrilla dabil
oso joera biziyan,
nola Donostin, ala Bilbaon,
biyetan irabaziyan;
kanpeonatu deitzen diogun
arrauneko jimnasiyan,
Oriotarrak aurten txapeldun
gera España guziyan.

8/ Kanpeonatu ori jokatzen
Bilbaon giñaden asi,
lendabiziko palaratikan
arrauna zitzaigun ausi;
beste arrauna prestatzerako
kontrariyuak igesi,
arrapatuta pasa giñun da
an e Oriyo lenbizi.

9/ Egiyak garbi esan ditzagun,
gezurrak eztu baliyo,
oraingo bertso berriyak dira
estropa dala meriyo;
Getariarrak aurten azpira
bota nai zuben Oriyo...
lengo oiturak segitziatik
kukubak oker jo diyo.

- 10/ Getari ortan batenbat bada
bere ustetan abilla,
estropa kontun ez orrera jun
laguntzalliaren billa;
bat Aiakua genduela ta
kendu ziguten mutilla,
ori gabe're jokatu gera
oiek añeko kuadrilla.
- 11/ Getariarrak arraun-lanean
ikasi dute dotore,
Oriyotarrair irabazteko
aurten prestatu dirare;
kuadrilla aundiyak alkar artuta
governatuta or daure,
olako markak egin ditezke
lapa gordiñak janda're.
- 12/ Estropa aurreko egun batzutan
erronka bazun Getarik,
oien txalopak ez du artutzen
biar añako martxarik;
ez du baliyo ez baldin bada
indar aundiko gazterik,
arraunai gutxi tirata ez dago
estropa irabazterik.

- 13/ Len egindako azañagatik
arrotutzen al zerate?
Getariarrak poztutzen dira
bakarrik dabilzan arte;
baño estropa jokatutakon
askotan galtzen dezute,
oraindikako lotsagarriña
aurten gelditu zerate.
- 14/ Nolanakua ez da izan aurten
Oriyotarren joera,
lenago ere urte askotan
onla ibilliyak gera;
irabaziyak zenbat ditugun
orain guaz esatera:
ogei eta bost kopa eder ta
berroi ta amabi bandera.
- 15/ Kopak ere bai, bandera asko,
bedeinkatzeko zeguan,
Agorrillaren ogei ta iruba
egun bat jarri genduan;
arraunlariyak arraun da guzi
aldariaren onduan,
bedeinkaziyo eder askoa
guztiok artu genduan.

GAÑONTZEKO BERTSOAK

BERTSO BERRIYAK

(ARTZAIARENAK)

Bere illobak esan digutenez, Axentxiok kontatzen duana, gertatua ez da. Bere gisa asmatu zituan, bertsoak ez-ezik, pasadizua ere.

Go-ye-rr-i-tik ar-tzai-bat je-txi zai-gu gu-
-ri kon-tu-ba pran-ko o-rreke-e-ka-rr-i dit ne-
-ri nes-ka-txai ba-ño as-koz na-ya-goar-di-ya-ri bo-
la-ra on-tan ba-du nai-ga-be u-ga-ri.

(Doñu au, Axentxioren illoben alaba batek kantatua da; ta Ambrosio Zatarain jaunak magnetofon-artistik paperera aldatua.)

1/ Goiarritik artzai bat
jetxi zaigu guri,
kontuba pranko orrek
ekarri dit neri;
neskatxai baño askoz
naio ardiyari,
bolara ontan badu
naigabe ugari.

2/ Bertsuak jarritzeko
artu nau propiyo,
andregaiak despeira
eman omen diyo;
kopeta beltza dauka,
muturra seriyo...
motibua badauka,
ezta misteriyo.

3/ Oien pasadizuak
nago kontatzeko,
dama ori bildur zan
neskazartutzeko;
bera zan prestatuba
orrena etortzeko,
artzaia're konforme
jarri zan artzeko.

4/ Nik esango dizkiot
dama orri egiyak,
beti moda berriyai
begira begiyak,
zapata beltxak betik,
gañetik txuriyak...
eztu orlako andre
biarrik artzayak.

5/ Brusa zar bat soñian
galtza konpondubak,
elastiku-alkandorak
danak ajatubak;
abarka ta azpantar
erdi zulatubak,
orrek aprotxatze'itu
lengo modakuak.

6/ Eun ardi, ogei bildotx,
gañera ariya,
auzuetan bei asko
erdira jarriya,
pareta-zuluetan
diru-pill aundiya...
interesa askoren
jabe da artzaya.

7/ Artzai orrek ez digu
nungua dan esan,
nunbait disimuluan
mendiyan bizi zan;
noizik bein merkatura
Tolosâ jeisten zan,
dama orrekin tratatzen
an asi omen zan.

8/ Brusa-dun aberatsa
ein dunên nobiyo,
dama ori apaintzen
leno baño geyo;
mutill gazte politak
gustatu zaizkiyo,
artzaiari petardo
laister eman diyo.

9/ Relojo eta kate
dotore jarriyak,
bibote ta gorbata,
zapata gorriyak,
dam'au engañatu du
nobiyo berriyak...
olakorik etzuben
pentsatzen artzayak.

10/ Artzaia ibilligatik
erropa zarrakin,
amar bat milla duro
badauzka berekin;
dam'au gustora dabill
bibote-dunakin,
lanik asko izan biau
mantentzen orrekin.

11/ Bibote-dun ori da
polita pausuan,
gorbatak etxian da
diruba auzuan;
obe zuben artzaia
apaindu bazuan,
mundu au lasaiago
pasatuko zuan.

12/ Bere andregaiaren
despeira artuta,
artzaia gelditu da
desesperatuta;
bertsuak jarritzeko
ni enkargatuta,
Amerikara jun da
ardiyak salduta.

13/ Ameriketarako
prestatzen zan asi,
buru-austia pranko
pasa zun lenbizi;
artian itxasorik
etzuben ikusi,
baporian sartu zan
makilla ta guzi.

14/ Bapore azkar baten
emendik juan da-ta,
laister iritxiko da
Amerika ortâ;
Euskalerrirako du
kariño aparta,
allegatzen danian
bialduko'u karta.

15/ Ez degu aldegiña
emendik itxusi,
abitzerako ditu
bost traje erosi;
oraindik baietz ura
Goiarrin ikusi
bibote ta gorbata
sombbrero ta guzi!

Bertso-papera: “Tip. Elustondo - Zarauz”. Ez nuan apuntatu zeñi jaso nion.

Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea, Aizarna'ko Josefa Aizarna'gandik.

Aldaketa batzuk badituzte bi paper auk. Obe iritzita, lenengoari jarraitu diogu. Bañan lenengo paper orrek, 4'garren ta 8'garren bertsoak tokiz trukakuta dauzka.

Bigarren paperaren aldaketak: 1/5: neskatxari baño kariño; 1/6: geio ardiyari; 7/1: Nungua dan ez digu; 7/2: artzai orrek esan; 8/6: juntatu zaizkiyo.

BERTSO BERRIYAK

(NAGUSI-MORROIARENAK)

- 1/ Nola arkitzen geran
morroi ta nagusi,
jendiari nai diot
kantuz adierazi:
lanik egin gabe nai
ondo janez bizi,
orla soldat'aundirik
ezin irabazi.

- 2/ Morroi billa egin det
makiña bat pauso,
noizbait egokitu zait
bañan ez eroso,
nere buruarentzat
kaltean akaso,
lanik ez du egin nai,
alperra da oso.

3/ Pentsatzen jarrita're
komeriyak daure,
neska zar bat erten zait
morroien fabore:
Oraingo nagusiyak
tranposuak daude,
alperra baldin bada
beretzat mesede.

4/ Ez dago artzen erraz
beti pazientzi,
soldata nai du jaso
biar edo etzi;
tripazai galanta da,
lanak bestei utzi,
orrentzat naikua da
mantendu ta jantzi.

5/ Zabaldutzen ari naiz
morroiaren nota,
iñori ez diot nai
gezurrikan bota;
amar arrua bada,
gilborra galanta,
laister galdu biar du
gantzak alkar jota.

6/ Paperian jarriyak
daguzkagu kantik,
entzungo dituzute
arrazoi apartak;
batzuek diotenez
gezurak galantik,
artu biarrian naiz
morroiaren bueltak.

7/ Zenbaitek morroi ona
nai luke debalde,
nola portatu naizen
auzuari galde;
neri lanak utzita
perira maiz alde,
aspaldin soldatarik
nago jaso gabe.

8/ Egokitutzen bada
astian periya,
andik etortzerako
beti gaberdiya;
eduki ez bazendu
etxian morroya,
gosiak ilko zuen
zure fameliya.

- 9/ Bazkalduta perira
juten da aguro,
ostatuko maiera
illuntzerazkero;
meriendatu lasai
kafe eta puro,
laister gastatzen ditu
amasei bat duro.
- 10/ Etxera abitu ta
nolako balantzak!
gerrikua galduta
arrastaka galtzak;
loi-zuluan sartuta
anketan lokatzak,
diruak gastatuak,
patrikarak utsak.
- 11/ Etxian dauzkan beiak
besterenak dira,
tratalariyak jarri
dituzte erdira;
esnerik ez bada're
errapetik tira,
emezortzi erralde
bakoitza eztira.

12/ Zortzi egun parrandan
txekor-diruakin,
etxeko fameliya
sardina zarrakin;
andriak errietan
laister ziyon ekin:
Ez dago bizitzerik
munduban zurekin!

13/ Etxian ankutsikan
umiak ugari,
ez diyozu laguntzen
zure andreari;
pensatzen jarrita ere
gezurra diruri,
morroi alperra baño
txarrago da ori.

14/ Nere etxeko andre
Joana andra Mari,
zer egin pentsatu du
nagusi jaunari:
parte emana dago
agintariyari,
bi urteko kartzelâ
sartutzeko ori.

15/ Diru pixkat sobratu
nai genduben aurten,
gizon ori ezin da
tabernatik erten;
kejatutzia ere
alperrik da emen...
per omnia saecula
saeculorum, amen.

ITURRIAK: Bertso-papera: "Imp. Macazaga - Rentería".

Bertso-papera: "Imp. Macazaga - Rentería" orriaren beste aldean Gabon-kanta ta Santa Ageda kopla batzuk dituala.

Bertso-papera: moldiztegiaren izenik gabea.

Bertso-papera: "Tip. Elustondo - Zarauz".

(Ez nuan apuntatu, bertso-paper auek nortzuei jaso nizkien).

BERTSO BERRIYAK

(SAN INAZIORENAK)

- 1/ Jesusengana laguntza eske
nabil mundu zabalian,
gizon on baten pasadizuak
adierazi artian;
San Inaziyo jaio omen zan
Azpeitiyako partian,
milla lareun larogei eta
amaikagarren urtian.

- 2/ Azpeitiarra omen zun aita,
ama Azkoitiyakua,
amaren aita Bizkaiatarra
zuben Ondarruakua;
senidietan gaztiena zan,
oso fede onekua,
Jaungoikuaren ordena-pian
pasatu zuben mundua.

- 3/ Gaztia zala bialdu zuten
itxetik soldaruzkara,
erlijiyuen alde zebillen
errege baten mendera;
beren biziya arriskatuta
deboziyua gogora,
an ere laister atera zuben
kapitanaren karrera.

- 4/ Garai aietan gerra gogor bat
omen zitzaien gertatu,
balazo batek arrapatuta
anka bat ziyon puskatu;
erida aiek sendatutzer
Loiolâ erretiratu,
Jaungoikuari bere buruba
etziyon gutxi makurtu
- 5/ Gazte denboran libertadian
gertatutzen dan kontuba,
mundu ontako txorakeriyak
bete zioten buruba;
Jesukristoren fedia zeukan
biotzeraño sartuba,
laister egin zun bere okerrak
zuzendutzeko moduba.
- 6/ Mundu ontako txorakeriak
Jaunari zizkan aitortu,
otoitz egiñaz Inazio zan
lurrera belaunikatu;
arren milagro z omen zitzaien
itxe guztiya mugitu,
oraiñdik ere paretietan
zirrikitubak baditu.

- 7/ Arrats artan e Inazio zan
otoitz egiten asiya,
Ama Birjiñak an egin ziyon
mirari arrigarriya;
aurtxoa artu besuan eta
aurrian zuben jarriya,
itz egin gabe agertu ziyon
bere maitasun guztiya.
- 8/ Montserrat'era iritxi zan da
bere gogoa konpritu,
zeuzkan pekatu guztiyak zizkan
konfesorai aitortu;
soñeko jantzi apaña ziyon
eskeko bati trukatu,
arrats guztiyan Ama Birjiñai
errezuan zan aritu.
- 9/ Ipar aldetik abiyatuta
iritxi egu-aldera,
eskian juañ zan Italiyaren
alde batetik bestera;
zenbateraño sufrituba zan
andik kontubak atera,
Venecia'tik itxas-ontziyan
berriz Jerusalenera.

- 10/ Obra onetan segitutzia
agintzen ziyon goguak,
aiuratutzen enpeñatu zan
ospitaleko gaxuak;
alde batera utzi zituben
mundu ontako gustuak,
ori egiten dubenak gaur e
istimatuko'u Jainkuak.
- 11/ Manresa'n urte bete pasata
juan zan Jerusalem'era,
San Inaziok desio zuben
pelegrinaziyo batera;
obra onetan uste gabian
zijuakiyon denbora,
beste buelta bat egin zun andik
Olibet mendi altura.
- 12/ Bere lagunak bian utzita
abiyatuba zan ara,
San Inazio bakarrik juan zan
Olibeteko mendira;
"Turkiatarrak illko digute"
bati zitzaion gogora,
bueltan azaltzen etzitzaien da
luze zijoan denbora.

13/ Inazioren lagunak zuten
morroi bat billa bialdu,
iristerako omen zitzaizkan
kolerak oso berotu;
makillarekiñ jo ta lurrian
arrastaka zun mallatu,
San Inazio aiñ zan umilla,
itzik etziyon bueltatu.

14/ Estudiyatzen abiyatzeko
artuba zeukan iria,
nolabait pasa biarra zeukan
Barcelona'ra biria;
istimaziyo gutxikua da
askon artean pobria,
ondoren artan ark egindako
milagro ederrak badia.

15/ Iru itxas-ontzitatik batian
tokiya zuben eskatu,
San Inazio bi ederrenak
etzuten errezibitu;
barku zar erdi zulatu (1)
jabiak berekiñ artu,
gai artan bada zer kontatuba
ondo esango banitu.

(1) Emen itzen bat falta da; ori adierazteko ja-
rri ditugu puntu oiek.

16/ Turkiyatarra ta Venecia
martxatzeko preparatu,
Inazio zan barku zarra ta
irurak ziran abitu;
birian zuten denboale bat
oso fuertia billatu,
Turkiyatarrak omen ziraden
gizon da guzti ondatu.

17/ Venecia'tar itxas-ontziya
aiziak zuben puskatu,
San Inaziok ango kuadrilla
ito gabe seguratu;
barku zar erdi zulatu arrek
ondo zuben nabegatu,
Venecia'ra aberi gabe
iritxi ziran kontentu.

18/ Naio zutenak an bazebiltzan
zuzena bañon okerra,
bestientzako ark jarri zuben
akordamen bat ederra;
San Inaziok zerutik zeukan
itxasuan e indarra,
denboraletan aguantatzeko
izan zan aren biarra.

19/ Venecia'tik alda-aldiya
egiñ zuben Génova'ra,
berriz itxasoz abiyatzeko
ontzi bat eskatutzera;
soldadubakiñ astiñ-aldi bat
antxen zan artuba bera,
milla bost egun ogei ta lauban
sartu zan Barcelona'ra.

20/ Jaungoikuaren laguntzarekiñ
memoriz eta mingañez
deseo zuben obra on danak
artian ondo jakiñ ez;
Barcelona'ko ikastetxera
bisitatxuak egिñez,
ume koskorren artian antxe
ikasi zuben latiñez.

21/ Ark Barcelona'n bi urte pasa
zituben estudiante,
ta Alcalá'ko ikastetxera
sartu zan sufiziente;
Jesukristoren dotriñarikan
ontzat artu diote,
ostera andik Salamanca'ra
juan zitzaien derrepente.

22/ Gizon gaizto bat zutelakuan
katiakiñ zuten lotu,
zerbaiten kulpa bazun bezela
kartzela batian sartu;
Jesusek zenbat sufritu zuben
laister zun konsideratu,
menospreziyo aiek guztiyak
pasatu zituben kontentu.

23/ Estudiyoko bere karrera
Paris'en zuban bukatu,
beti okerrak zuzendu naian
korputza asko nekatu;
penitentziya-baraubakiñ
osasunatik bajatu,
iru illabete deskantsatutzen
Azpeiti'n zitun pasatu.

24/ Bere lanari osterera eldu
indartzen asi zanian,
ibili-aldi bat orduban egiñ
zuben Españi aldian;
milla bost egun eta gañera
oi ta amazpiko urtian,
lenengo meza eman omen zun
Venecia'ko partian.

25/ Arren orduko pasadizuak
esango ditut batzuak,
meza emanda Erroma aldera
egiti zituban pausuak;
begiyen bistan zeamakizkiti
bere maitasun gozuak,
Aita Santuak errezibitu
zabaldurikan besuak.

26/ Milla bost egun berroi ta amasei-
garren urteko kontuba,
irurogei ta bost urterekiti
Inazio gaxotuba;
begiyak jaso, biyotza zeukan
Jaunarekiti unituba,
Uztaillaren azken goiz alden
bukatu zuben munduba.

27/ Il da gero're milagro asko
izan zan egin zubena,
garai artako Aita Santubak
Gregorio amairugarrena,
San Inazioi ark eman zion
santu aundi baten izena,
au zan urtia milla seiregun
ta bederetzigarrena.

28/ Aixkire batek enkargatu nau
bukatutzeko lenbailen,
presaka ezta lanikan ondo
sekulan iñon azaltzen;
pasadizuen amarretik bat
oraiñdik ez dago emen,
obetuago jarriko ditut
patxaraz asten naizenên.


29/ Fede santuba zabaldu zediñ
saiatu ziñan gogotik,
urte askuan akordamen au
jendiak dauka argatik;
al dan guztiya enpeñatuko
gerade gu're emendik,
gure animik galdu ez dediñ
lagun zaiguzu zerutik.

30/ Emen pixka bat sufritzen dunak
dauka gero suertia,
San Inazio beti izan zan
ortan kupirik gabia;
aldez aurretik zabaldu ziyon
San Pedrok ari atia,
zeruan alkar ikusi artên
onekiñ errematia.

ITURRIA: Bertso-papera, "Elustondo - Zarauz",
Gregoria Ibarгойen zana, Orio.

BERTSO BERRIYAK

(ZEZENARENAK)



En-ten-di-men-tu txarra ez-pa-det e-ka-
-rrri, do-ze-na-txo-bat ber-tso nai ni-tu-ke ja-
-rrri; jen-di-a a-di-tze-ko da-go-la-ko la-
-rrri, i-ñork ja-kin nai ba-du ko-rrri-da o-nen be-
-rrri pa-pe-rak e-ros-te-ra len-ba-len e-to-rrri.

(Doñu au ere, Axentxioren illoben alaba batek kantatu du; ta A. Zatarain jaunak aritik paperera aldatu.)

- 1/ Entendimentu txarra
ez badet ekarri,
dozenatxo bat bertso
nai nituzke jarri,
jendia aditzeko
daguelako larri;
iñork jakin nai badu
korrída onen herri,
paperak eroatera
lenbailen etorri.

- 2/ San Pedro bigarrena
eguna jakiña,
emen ikusi gendun
korrida bikaña;
ustez barrerak ondo
jarri ziran baña,
kanpora eskapatzeko
zezen oien griña,
egin zuten tokiya
irteteko aña.
- 3/ Bosteterdiyetan zan
korrida ori asi,
oitura dan bezela,
torero ta guzi;
oraindañoko markak
dizkigute ausi,
Azkonarra Tankredo
dubenên ikusi,
plazatikan zezena
jun zaie igesi.
- 4/ Korrida ikusi naian
genden luzaruan,
ara zer gertatu dan
asi dan orduan;
torerua plazan da
zezena kanpuan,
beste puntziyoren bat
espero genduan,
olakorikan etzan
pasako munduan.

5/ Lenbiziko zezena
etzegon goxua,
lau saltotan pasa du
kale bat osua;
estazio aldera
egin du pausua,
furgoian espero zun
bide erosua,
trenak eman dio an
banderillazua.

6/ Zezenak pentsatu zun
trenian juatia,
aldrebes gertatu zan
aren suertia;
estaziyuan itxi
naiago atia,
zeñek emango zion
ari billetia?
trena billatu zuben
torero fuertia.

7/ Zezen bat plazatikan
ziyen eskapatu,
kalian ibiltzia
etzun eskusatu;
estaziyora junda
trenbirian sartu,
ipurdiyan jo eta
atziak baldatu,
egiya dan edo ez
jefiai galdetu.

- 8/ Bigarren zezena zan
pixkorra gogotik,
laister aldegin ziyen
ark ere plazatik;
erbiñurien gisa
pasa zan txulotik,
jendia pranko bazan
segika atzetik,
arrapatuta berriz
ekartziagatik.
- 9/ Zezen gorri ori zan
oso indartsua,
mollado alderditik
egin zun zulua;
Kofradiko arranplan
sartu zan putzuâ,
igalariya ere
ez oso mantsua,
madritarrak bezela
artu zun bañua.
- 10/ Ontzi txiki batekin
zuten arrapatu,
bi adarretatikan
gogor amarratu;
ala ere zezena
etzan sosegatu,
legorrian bezela
ezin borrokatu,
ondorik jo eziñak
zuen izorratu.

11/ Ostera ekarri zuten
plazara putzutik,
leno baño obeto
toriatziâtik;
berriz aldegin ziyen
baztar-bazterretik,
korrikari azkar bat
jun zaio atzetik,
eskuakin gelditu
zuan isetsetik.

12/ Amabi bertsoarekin
asi naiz bukatzen,
zekor danak eztira
igual istimatzen;
zezen gorriya orain
ari da indartzen,
arkaitzen baten bera
ez bada erortzen,
San Nikolasetako
dago gobernatzan.

ITURRIAK: Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea, Joakin Aldabe, Orio.

Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea au ere, Errenteria'ko Luis Mitxelena'ren bitartez eskuratua. Paper onek *fonetismoak* zuzentzen ditu, adibidez, *jendea*, *daguelako*, *goxoa*, *jarriaz*, *jendia*, *daguelako*, *goxua* idatzi bearrean. Au izango da, beraz, bigarrengo atera-aldia, lenengoa "orraztutzeagatik" argitaratua.

BERTSO BERRIYAK

(BERTSOLARI TA EIZTARIENAK)

- 1/ Beatzi punturekin
dijuaz bertsuak,
memoriz ezpagaude
oso mantsuak,
lenbizi agertuaz
neronen pausuak,
gero sartuko ditut
sozioon auzuak:
erari goxuak
dira gustosuak,
gure kapretxuak
parranderotxuak...
obeto ematen du
gizon txintxuak.

- 2/ Au da bertsolariyak
daukagun bizitza:
erretira txarraren
billa gabiltza,
eskarmentuan sartzen
guretzat lan gaitza,
portamonera ximur,
arindua boltsa,
nastua gorputza,
nundinaitik otsa,
fameliyen lotsa,
buruz-bide motza...
amarretatik zortzi
orla dabilta.

3/ Jai aundi xamarrikan
bada egokitzen,
kuadrillan tabernara
gera bildutzen,
erbestekuak ere
zaizkigu etortzen,
lendabiziko lana
alkar toriatzen,
ardua partitzen,
txintxurra bustitzen,
barrena berotzen,
biyotza indartzen...
orduban asten gera
danok kantatzen.

4/ Tabernan sartu eta
andik irten eziñ,
proatu ez banuben
gauz oi ez nekiñ;
zurrutaren mendian
eztago atsegiñ,
mingaña loritu ta
izketan utsegiñ,
kaskuai atzegiñ,
lagunai otsegiñ,
kafia artzen ekiñ
anis botillakiñ...
astelenian triste
begi gorrikiñ.

5/ Astelenian beti
jeikiera motza,
etxeko pameliyak
kopeta beltza;
diruak gastatuak,
patrikara utsa,
gerrikua galduta
esateko lotsa,
eztarriya latza,
katarruen antza,
noranai balantza
auntza ta ununtza...
mediko gabe luak
sendatze'un gaitza.

6/ Lanian asi eta
gerritako miña,
parranda ta ibillera
txarrak egiña;
zenbaiti dantzatzeyo
andriak mingaña,
ortan kuidadorikan
ez daukagu baña,
badago tamaña,
saia alegiña
zintzotzeko griña,
propositu fiña...
obe genduke orla
bizi bagiña.

7/ Beste opiziyo bat
ona iztariyak,
osatzeko familin
dauden premiyak;
lurrera bota naian
egazko piztiyak,
ollaor eta uso,
gañera erbiyak,
utsegiñ erdiyak,
zanpatu gariyak,
oien pikardiyak
dirade aundiyak;
apuntatuko ditu
bertsolariyak.

8/ Eizeko aitzakiyan
andregaiengana,
sasoikua joaten da
al dubengana;
alabak enpliatzen
gurasuen lana,
aita t'amen kontura
jan d'eran al dana.
utzirik galbana,
artu datorrena,
mingaña leguna,
izketa biguna...
iñork ez du galdu nai
epoka ona.

9/ Saio txiki bat egin
lenbizi eizian,
sartzen dira neskatxak
diran etxian;
subaren inguruban
jarri sukaldian,
ama toriatuaz
alabak nun dian.
"Joxepa kalian,
Pantxika birian,
Manutxo oyian,
sano zan jayian,
eztulka ez du lorik
egin gabian".

10/ Norbait esperoko du
pultsuba artzera,
titulorik gabe zein
atrebitze'ra (1)
petxuko miña eta
eztula kentzera?
"Manutxo jaiarako
sendatzen bazera,
lasai juango gera
pasiatutzera,
gabian baltsera,
berandu etxera..."
Gazte zabarra orla
edukatze'ra. (2)

(1) atrebitze'ra = atrebitzen da.

(2) edukatze'ra = edukatzen da.

11/ Biyar amaikak arte
egongo da lotan,
amak badu erruki
arentzat ortan;
nobiyo on batekin
dabillelakotan,
orla ikusten dira
amaika lekutan;
lujua oñetan,
da igual goietan,
iskiña danetan
apaindu benetan...
belaunak agerijan
gona motzetan.

12/ Amabi bertsorekin
bukatzen naiz asi,
uste't gezurrik ez det
adierazi;
iztariyak ez dute
gaizkirik merezi,
enplio danetakok
biar degu bizi;
zakur eta guzi
oi dira ikusi,
zelai eta sasi,
piztiyak igesi...
eskopeta obiak
aurten erosi.

ITURRIA: Bertso-papera, "Imp. Macazaga - Rentería", Lexo bertsolaria zanaren alaba dan Adelina Sarasola'rengandik, Donostia'n.

BERTSO BERRIYAK

(KUKU-ARRI'KO GURUTZEARENAK)

1953 urtean gurutze aundi-zuri-eder bat jarri zuten oriotarrak Kuku-Arri deritzaion mendi-tontorrean. Mendi onek ipar aldera itxaso zabala du, mendebal aldera Orio bere ibaiarekin; gurutze au ikusten dute arrantzaleak itxasora dijoazenean edo itxasotik datozenean. Mendiaren ego-aldera, berriz, txoko batean, Txanka dago, beste zenbait baserrirekin.

Bertso auek Orio'ko Gregoria Ibarгойen zanak eman zizkigun, orri batean eskuz idatzita.

- 1/ Bertso berriyak ateratzeko
pentsaturikan dabilta,
Oriyon gazte-kuadrilla bati
baietz eman diyot itza;
orretarako preziso bear
Jesukristoren laguntza,
egun bateko segurantzirik
gabe munduban gabilta,
Aita San Pedron eskutan dago
zeruko atiaren giltza.

- 2/ Oriyotarrak deseo ori
bagendukan aspaldiyan,
gazte leialak ekin ziyoten
aiñ intentziyo aundiyan;
lagundutzeko ere jendia
juntatu zaie erriyan,
milla urte ta bederatzireun
berrogei ta beretziyan,
gurutze santu on bat egin da
Kuku-Arriko mendiyan.
- 3/ Iri ta itzai, peoi ta arotz
osaturikan basarriñ,
bukatu arte segitu're bai
borondate onarekiñ;
jende guztiya gustora dabill
azaldu diran lanakiñ,
Gotzai Jaunaren baimenarekiñ
asi giñan eta egiñ,
suerte on bat izan dezagun
gurutze santubarekiñ.
- 4/ Zeru-lurreko agintariyai
geren eskiñi-aldiya,
gurutze ori egiteko ere
allegatu zan garaya;
Kuku-Arriko mendi gañian
dago ederki jarriya,
berekín batên antxen daduka
altuneko baserriya,
fede oneko jende guztiya
gera ango pamiliya.

- 5/ Longa izena duben etxe bat
antxen billatu genduan,
beste basarri txuri polipat
dauka bere inguruan;
gurutze orren pare-parian
pixkat beraxiaguan,
eguneroko oraziyuak
artu dituzte buruan,
Jainkuak daki pamili ortan
zer kontsuelo dagan.
- 6/ Bedeinkatzera Aita Don Migel
jun zitzaigun Oriyotik,
meza eman da itz eder asko
ateriaz bere autik;
jendiak ondo jarraitu digu
erriko ta erbestetik,
Jesukristoren neke-aldiya
ezin zan kendu burutik,
makiña baten biyotza negar
or egiña da gogotik.
- 7/ Maiatz illaren azken xamarra
ogei eta beretziya,
egun ori zan bedeinkatzeko
izentatuta jarriya;
eguzki gozo eder batekin
gertatu zan egualdiya,
alde danetik etorri're bai
Oriyora gazteriya,
bixitatuaz gurutzi eta
Kuku-Arriko mendiya.

- 8/ Gurutze ori zertarako dan
emango'ira abisuak,
etsai gaiztuak bialdu ditzan
Jesusen bendiziyuak;
akordatuaz Jesukristoren
Galbarioko pausuak,
bera josteko espaldan artu,
ain ziran lastimosuak
jende geiagok jakitiâtik
jartzera guaz bertsuak.
- 9/ Sermolariyak esaten dute
arrixku aundiyan gaudela,
etsai gaiztuak gure animen
billa beti dabitlzala;
Jesus askotan ikusten degu
zintzilikan daguela,
zeruko atiak zabaldutzerik
etzeguelako bestela,
gurutziari iltzez josita
eman zun bere odola.
- 10/ Jesukristoren Galbarioko
naigabe penagarriya,
arantza luze-zorrotzez bera
buruan sartu koroya;
odol-iturri estalirikan
Jaungoikozko arpegiya,
iltze gogorrez esku-oñetan
gurutziari josiya,
bular santuan lantza sartuaz
zintzilik zuten jarriya.

11/ Bost milla azote eta geiago,
au da fedeko egiya,
oi danagatik bizi nai bazun
bazeukan komenentziya;
gure animen onagatikan
eman zun bere biziya,
nere partetik eskeintzen dizkat
eskerrak eta graziya,
azken orduan gertatu dedin
zeruba irabaziya.

12/ Jesus maitiak guregatikan
zer pena pasa zituban,
gau eta egun jai eta aste
iduki zagun buruban;
projimua're ondo amatu
dotriñan dagon moduban,
besteren gauza deseorikan
ez izan iñork munduban,
ori egiten baldin badegu
sartuko gera zeruban.

BERTSO BERRIYAK

(ARRANTZALIENAK)

- 1/ Arrantzalien jaia
San Pedro eguna,
urte guziko poza
ematen diguna;
soñuba eta dantza,
jana ta erana,
iru bat egunian
sobraturik dana.

- 2/ Arrai-leku ederra
degu Kantabriya,
arratikan dator
arraia ren kriya;
putzu orrek danentzat
sobra du tokiya,
itxasotik mantendu
jendien erdiya.

- 3/ Leatzetan dabilzan
arrastero onak,
egualdi ederrian
gustoko egunak;
denborale gaiztuak
itxasuan danak,
nik baño obeki daki
gaur an dabillenak.

4/ Batzuek juaten dira
bakallerotara,
bere bizi laburra
arriskatutzera;
illabete osua
emendikan ara,
nola ibiltzen diran
kontubak atera.

5/ Lenengo egunetik
utzi legorrari,
gabian klaro bada
izarrak giyari;
motorrak egin biar
buelta ugari,
lepotik eltzerako
ai bakallauari.

6/ An gertatu liteke
ondo-ez-aldiya,
batek badula gripe
edo plumoniya;
ospital da klinika
baforeko oya,
medikua urruti...
an dô komeriya.

7/ Jende ori koajez
dago osatuba,
denborale txar asko
len e pasatuba;
Jaungoikuak laguntza
dauka prestatuba,
egunero ibilli
gurutze santuba.

8/ Orrenbeste denboran
saiatze'ira fuerte,
baforia bakalluz
dana bete arte;
tonelaje aundiya
ekarritzen dute,
biraje ortan biar
sei bat illabete.

9/ Itxasuan eginda
makiña bat jira,
noizbait ere portura
allegatzen dira;
al duten azkarrena
beren pamilira,
aspertu ere eziñ
alkarri begira.

10/ Semetxoak amari:
Emen da aitatxo,
len bezela oraiñ e
portatzen da txintxo;
atzo bakallerua
bialdu zun geitxo,
oliyua ekarri
lezake ondotxo.

11/ Itxaso-bazterrian
bafore txikiyak,
oiek ere dauzkate
beren komeriyak;
arrantzaliak geitu,
gastuak aundiyak...
lanak ematen dizte
neguban ogiyak.

12/ Korrokoi ta txitxarro,
antxo ta sardiña,
txipiroi eta berdel,
bixigu, lupiña;
atuna arrapatze'ute
arrairik aundiña,
ondo eskabetxatzen
gaur askok dakiña.

13/ Bafore txikiyakin
atun arrapatzen,
bi eguneko birian
dira atrebitzen;
amar bat egunian
ez dira baztertzen,
oriotarrik orla
len etzan ibiltzen.

14/ Len ere juten ziran
atunaren billa,
arraun eta kalero
eta gizon-pilla;
bela zabaldu eta
azaldurik killa,
irauli-eta bada
makiña bat illa.

15/ Ardoran ere baita
antxo manjuakin, (sic)
iñoiz etxara ederrak
oi dituzte egin;
ondo konpontzen dira
tabernariyakin,
kafia partitubaz
txakur dirubakin.

- 16/ Akordatutzen gero
lengo kontuakin,
ogei baso sagardo
pezeta batekin;
parrillan erre eta
sardiñ berriakin,
sardiñik etzanean
txulet aundiyakin.
- 17/ Zortzi duro askotan
kilo aragiya,
sasoikuak eskas du
lau pezten ogiya;
ardua zazpi pezta
litroko porroya,
gaur eztô jaten errez
txuleta aundiya.
- 18/ Batzuek arrantzan da
besteak labrantzan,
zarrak bizkarra makur
sasoikuak dantzan;
lenago're legea
oraiñ bezela zan,
obeto izateko
beti esperantzan.

ITURRIAK: Bertso-papera, "Tip. Elustondo - Zarranz", Errezil'ko Iraola-zarra baserrian jaso.

Bertso-papera, "Delfín - Ondarroa", Pello Saikola bertsolaria, Orio.

Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea; ez nuan apuntatu zeñi jaso nion.

BERTSO BERRIYAK

Luis Atxaga pulsolariari ere bertsoak jarri zizkion Axentxiok. Bañan, zori txarrez, ez degu bi auek besterik jaso al izan. Pello Saikola'k emanak ditugu:

Luis Atxaga karga jasotzen
beti da gustagarriya,
jokatu duen toki danetan
egin du marka aundiya;
berreun kiloz betik zegola
Amezketako arriya,
amar minutun amaika aldiz
dauka espaldan jarriya.

Milla urte ta bederatzireun
berrogei ta amazzpian,
bost milla pezta premiyuakin
jarri zizkaten mayian;
berreun kiloko arriya berriz
plazaren erdin lurrian,
marka guziyak ausi zifuzun
Oriyon danen aurrian.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: SAGARDOAREN GRAZIYA (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: GABON, AU OSTATUBAI, ANTON KAIKU. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi, S.I.*: EUSKAL MUTILLAK AR-METAN, I.
4. *Pepe Artola*: USTEZ LAGUNA DETAN.
5. *P.M. Urruzuno*: EUSKALERRITIK ZERURA.
6. *T. Alzaga*: RAMUNTZO (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: GALTZAUNDI.
8. *A. Apaolaza*: PATXIKO TXERREN.
9. *B. Iraola*: OROITZAK.
10. ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA (1962) (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: BORDAXURI (*Aitua*).
12. *Bilintx*: BERTSO TA LAN GUZIAK.
13. *M. Izeta*: DIRUA GALGARRI.
14. *P. Larzabal*: IRU ZIREN.
15. EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
16. *A. M.^a Zabala*: GABON GAU BAT.
17. *A. M.^a Labayen*: MALENTXO, ALARGUNI
- 18-19. *A. Zavala, S.J.*: TXIRRITA.
20. *F. Goñi, S.I.*: LURDESKO GERTAERAK.
21. *P. Larzabal*: HERRIKO BOZAK edo NOR AL-KATE.
22. BERTSOLARIEN TXAPELKETA (30-XII-1962).
23. AIZKOLARIAK.
24. *F. Imaz*: BERTSO GUZIAK.
25. *A.P. Iturriaga*: JOLASAK.
26. *A. M.^a Zabala, A. Larraitz, Mir*: PERIYAREN ZALAPARTAK.
27. AZPEITIKO PREMIYOAREN BERTSOAK.
28. *B. A. Moguel*: IPUI ONAK.

29. *T. Alzaga*: BURRUNTZIYA.
30. *G. Anduaga*: EGUNSENTIKO TXORIA.
31. *M. Soroa*: BARATZAN.
32. *M. Elicegui, A. Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAREN BIZITZA.
33. *M. Elicegui, A. Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAK JARRITAKO BERTSOAK.
34. *P. Larzabal*: SENPERE-N GERTATUA.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: FESTARA.
37. *A. Cardaberaz, S.I.*: EUSKERAREN BERRI ONAK.
38. *S. Salaverria*: NERONEK TIRAKO NIZKIN.
39. AMAR URTEKO BERTSO-PAPERAK.
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: LARDASKETA.
42. *Uztapide*: NOIZBAIT.
43. BERTSOLARIEN TXAPELKETA (1-I-1965).
44. *P. Larzabal*: HILLA ESPOSATU.
- 45-46. *J. M. Satrústegui*: BORDEL BERTSULARIA.
47. *P. M. Urruzuno*: IRU ZIRI.
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: TEATRO ZAARRA.
- 49-50. *A. Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAREN ITZALA.
51. *P. M. Urruzuno*: UR-ZALE BATEN IPUIAK.
- 52-53. *G. Anduaga*: BERTSO-BILDUMA.
54. *A. Zavala S.J.*: PERNANDO AMEZKETARRA BERTSULARIA.
55. *Basarri*: LAUGARREN TXINPARTAK.
56. *A. Zavala, S.J.*: UDARREGI BERTSULARIA.
- 57-58. *C. Beobide, O.F.M.*: ASIS'KO LOREA.
59. *A. Zavala, S.J.*: AXENTXIO TXANKA BERTSULARIA.

